




Blanca Martinez Santamariak nebari gertatutakoa argitzeko borroka kontatu digu. ▶3

Euskarazko tokiko hedabideek «etorkizun oparoa» daukatela uste du Gorka Salces ikertzaileak; EHUUn tesia aurkeztu du portugaletetarrak. ▶16



hiruka

Uribe Kostako astekaria



61. zenbakia

2016ko
maiazaren 26tik
ekainaren 1era arte

Maskaradagaz dantzan!

Lamiakoko San Maximo jaiak maiatzaren 27tik 29ra ospatuko dituzte; hamaika ekitaldi egongo da. ▶6



SAKONEAN PLENTZIA

Plentziako Titanica

Principe de Asturias lurrunontziaren gaineko erakusketa ipini du Plentziako Plentzia Butron museoak. Ontzia garaiko handienetakoa izan zen, luxuzkoa; *Titanic* ontzia bezala, hondoratu ezina zela uste zuten. Eskifaiako asko Gorliz eta Plentzia ingurukoak ziren. ▶22-23

KULTURA LEIOA

Umore Azoka, jendez lepo

Kale-artisten Leioako jaialdiak aurreikuspen denak gainditu ditu. Hodei Torres gure argazkilaria irudiak dira horren lekuko. ▶10/15

KULTURA URIBE KOSTA

ALBE: zortzi kide sailkatuta

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa aurrera doa. Udagoieneko Fasean 7 uribekostarrek jardungo dute. Jone Uria ostean hasiko da. ▶14

Erandiogoikoko Gorpuzti jaiak udalerriko hamaika jairen denboraldia estreinatuko dute aste-akabu honetan. ▶5

Txosnen gainean akordioa lortu dute Sopelako Udalak eta jai-batzordeak; Loroñon ipiniko dituzte. ▶7

Barrikako Argazkilaritza Rallya antolatu dute, bigarren. Ekainaren 12an izango da, eta izen-ematea zabalik dago. ▶8

Eskualdeko gazte-mugimenduko kideek askotariko alternatibak sortzeko topaketak egingo dituzte hilaren 28an. ▶9



Amatasunak jomugan: amak beti errudun

Anna Gabriel CUPeko parlamentariak umerik izatekotan tribuan heztearen aldekoa dela esan du, amatasun tradizionala ez beste eredu baten alde azalduz; zelan ez, jendarte osoak iritzia eman behar! Ama izatearen erabakiaz harago (beste baterako), amatasuna zelan garatzeaz ari gara. Onintza Iruretaren artikulua buruan, (*Bateko eta besteko kritikek itotako amak*, Argia 2.448. zenbakia), bertako gogoeta batzuk ekarri nahi ditut. Irati Fernandezek *Feminismo y maternidad: ¿una relación incómoda?* ikerketan azaltzen duenez, ideologia hegemoniko bat dago (amatasun tradizionala), baita esperientzia alternatiboak ere (gehienak feminismitik bultzatuak); eredu bati ala bestelakoari jarraitu, amak beti epaitu egiten dira. Mari Luz Esteban antropologoaren ustez, ideologia hegemoniko horrek amatasun naturalizatzailea bultzatu du: ama ona da dena emateko prest dagoena; umea hazteak erabateko lehenetasuna du; eta emakume izate hutsagatik gizonek baino gehiago dakigu... Sozialki dauden ezberdintasunak ere naturalizatuz. Amekiko jendartearen presioa eta amen artean erruduntasuna oso hedatua daudela ere aipatzen du. Amatasuna askotariko esperientzia da, homogeneousatze joera dugun arren; hortaz, diskurtsoak aztertu behar dira, baina klase soziala, adina, formazioa, eta abarrak kontuan izanik. Ez baita kontu bera Europa mendebaldeko amez aritzea ala Afrikakoez. Adrienne Rich idazle eta aktibistaren ustez, amatasun instituzionalaren eta praktiken artean ezberdindu behar da: amatasun eredu tradizionala instituzio bihurtzean, eta patriarkala den neurrian, kritikatu eta eraitsi behar da. Irati Fernandezek dioen legez, hazkuntza bat ala beste epaitu baino, praktikak horiek amentzat zapaltzaileak direnentz aztertu beharko genuke.

Getxo

Udalak 46 administrari-laguntzaile behar ditu

Oposizio bidez aukeratuko dituzte; eskaerak datorren ekainaren 6ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Getxoko Udalak 46 administrari-laguntzaile lanposturako aukeraketa-prozesua martxan ipini du. Lanpostuok Administrazio Orokorreko Azpieskala Laguntzaileari dagozkio, hau da, Administrari Laguntzailea motari (C2 azpitaldea). Aukeraketa hori oposizio bidezkoa izango da. Hala, eskaerak datorren ekainaren 6ra arte aurkeztu ahal izango dira.

Guztira, 31 lanpostu eskaini dituzte Txanda Irekian. Horietatik, 19tan nahitaezkoa izango da 2. hizkuntza-eskakizuna; gainerako 12etan, ez da beharrezkoa izango. Barne-lehiaketan, 3 lanposturako deialdia egin dute. Horietatik, bakarrean izango da beharrezkoa 2. hizkuntza-eskakizuna.



Hainbat lanpostuk 2. hizkuntza-eskakizuna daukate.

Urritasunak dituztenentzat, beste 3 lanpostu gorde dituzte, eta horietatik, bakarrean ere izango da beharrezkoa 2. hizkuntza-eskakizuna. Gainerako lanpostuak (9) Aldi Baterako Enplegua sendotzeko izango dira, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 4. Xedapen Iragankorra aplikatuz. Horietatik guztietatik, 4tan nahitaezkoa izango da 2. hizkuntza-eskakizuna. Uztailaren 23ko 3809/2010 Alkatetza

Dekretu bidez onartutako eta 2010eko abuztuaren 4an Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 148. zenbakian argitaratutako oinarri orokorreari jarraituko die deialdiak; oinarriok urtarrilaren 25eko 362/2011 Alkatetza Dekretuaren bidez aldatu zituzten, eta 2011ko otsailaren 3ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean horrelaxe argitaratu, udal iturriek jakinarazi dutenez. ◀

info+: www.getxo.eus

Ekainaren 5eko ekitaldirako sarrerak, barikuan salgai

Gure Esku Dago ekimenak bultzatutako Getxoko Adierazpenagaz bat egin dute udalerriko ia 30 hautetsik; jardunean dabilzanak zein zinegotzi izandakoak, horien artean lau alkate ohi ere badira. Getxoko lehengo udal-lehiaren aurrean egin zuten agerraldia, akordura ekarriz Jose Antonio Agirre Getxoko alkate zela errepublikaren aldekatasuna adierazteko emandako

arrazoak. Erabakiaren Adierazpenaren alde daudela adierazi, eta dei egin dute ekainaren 5ean Bihotz Alai plazan egingo duten ekitaldian parte hartzeko. Getxoko GEDk jakinarazi du «Hartu aulkia» sarrerak salgai izango direla barikutik: Telletxeko (Algorta) lokalaren aurrean, astegunetan (18:00-20:00) eta zapatuetan (12:00-14:00); La Mona taberna eta eliza parean Romon. ◀

Andres Isasi musika-eskolak matrikulazio-epea zabaldu du

Getxoko Andres Isasi musika-eskolan 2016-2017 ikasturterako izena eman daborduko; hilaren 31ra arte egin ahal izango da. Hala, eskaera egiteko, inprimaki bat bete beharra dago, www.getxo.eus webgunean edo eskolan bertan, Areetako zein Algortako egoitzetan, eskuragarri dago. Eskola 4 urtetik gorakoei begirakoa da.

Bestalde, Udaleku Musikaletan izena emateko epea ere zabaldu du musi-

ka-eskolak; Art Libitum elkartearen bitartez. Parte hartu ahal izateko, hilaren 31ra arte egin ahal izango da izen-ematea. Udalekuak uztailaren 1etik 15era izango dira, Areetako egoitzan. Eskolen ordutegia 09:30etik 13:30era izango da, eta 4-12 urte bitarteko umei zuzenduta daude, zentroko ikasleentzat zein kanpokoentzat. Prezioa 130 eurokoa izango da. ◀

info+: aisasi@getxo.eus / 944 646 011

Tokyoko Rio-Rico Guitar Ensemble-ren kontzertua, Areetan

Tokyoko Rio-Rico Guitar Ensemble talde japoniarrak EAEn emango duen lehenengo kontzertua eskainiko du datorren eguenean, maiatzak 26, Areetako Andres Isasi musika-eskolan, doan. Saioa 20:00etan hasiko da, eta, besteak beste, ondorengo musikagileen obrak joko dituzte: Shiyo Tomiyama, Enrique Granados, Teichi Okano eta Emmanuel Chabrier. ◀

Udaberriko azoka egingo dute asteakabuan, Quetenquen

Gabonetan egin zuten legez, udalerriko hainbat dendak Spring Market (Udaberriko azoka) egingo dute Quetenqueren lokalean (Txiskiena, 2. Algorta). Azoka hilaren 28tik 29ra izango da, 17:00etatik 22:00etara eta 10:00etatik 15:00etara. Zapatuan, Jon Zabalak musika eskainiko du zuzenean, eta domekan, berriz, gozogintza tailerra, ipuin-kontalaria eta zuzeneko musika egongo dira aukeran. ◀

Getxo

«Kontatu diguten dena gezurra dela uste dut»



Martinezzen neba nagusia da Miguel Angel Martinez Santamaria.

Blanca Martinez Santamariaren familiak hamarkada luze bat daroa ezinean, jakin eta argitu guran 2005ean Suedian desagertutako senideari benetan zer gertatu zitzaion.

IKER RINCON MORENO ▶

Miguel Angel Martinezek 2005eko apirilaren 28an Euskal Herria utzi zuen Europatik bidaiatzeko. Eta ez zen inoiz bueltatu; Lindingo-n (Suedia) agertu zen bere ustezko hilo-

tza, urte hartako irailaren 22an. Bere familiak 10 urte baino gehiago daroatza borrokan, benetan zer gertatu zitzaion argitzeko.

Zein da jazoeren bertsio ofiziala?

Daborduko, 11 urte pasa dira, nebaren ustezko gorpua aurkitu zutenetik, eta oraindino ere, ez diote DNA probarik egin. Bertsio ofizialaren arabera, nebaren hilotza ur gainean agertu zen; hasiera batean esan zuten ez zekitelakintza kriminala zen ala ez. Bilbo-ko Polizia Espainolak abisua eman, eta esan zidan neba hil zutela. Suediatik, ordea, fax bat bidali zidaten, eta ikusi nuen neba abuztuaren 1ean atxilotu zutela. Orduan pentsatu nuen: «ez zuten hauek hilko, ezta?». Nire susmoak

helarazi nizkion enbaxadari, eta hurrengo egunean esan zidaten bere buruaz beste egin zuela.

Zuk ez duzu uste horrela izan zenik...

Euren arabera, «baliteke» bere buruaz beste egin izana. Londresen lurperatu genuen neba, bere bikotekidea izan zenaren horma-hilobian. Hasiera batean, Londreseko agintariak ez ziguten utzi nahi bertan lurperatzea, ez zekitelako zelan hil zen. Nik esan nien bere burua ito zuela. Kontua horrela, eurek *post mortem* ikerketa egin zioten, eta esaten zuten ezinezkoa zela neba ito izana, birikiak ondo eta hezur guztiak osorik zitu- tuelako. Izan ere, ontzi edo zubi batetik salto egin izanez gero, euren arabera, hezur guztiak apurtuta izango zituz-

keen. Halaber, esan zidaten Suediatik kontatu zidaten guztia gezurra zela. Bost urteren ostean, Rubalcaba Espainiako Barne Ministroak esan zidan nebarena «istripu samingarra» izan zela. Baina, zer esan gura du horrek?!

Hortaz, ez zuten hilketaren zergatia argitu, eta ahalegindu...

Ez. Londreseko ikerlariak 6 hilabeteko ikerketa egin zuten. Informazioa eskatu zieten Suediako polizia, baina suediarrek ez zieten ezeri erantzun. Denbora agortu zenean, ondorioztatu zuten hilketaren zergatia zehaztugabea zela, gorpuari bihotza falta zitzaiolako. Baina ez hori bakarrik: ikerketaren deskribapenean azaltzen da beste hainbat organo ere falta zitzaizkiola.

Horrek interes ezkutu bat egon dela pentsarazi dizu?

Bai, hala da. Dena den, 10 urteko borroka honetan ez dut hori salatu gura bakarrik. Esan gura dut edozelako babes barik gaudela guztiz; Europako Parlamentuak dio organoen trafikoa delitu larria dela, baina gure kasuan, inork ez du ezer ikertu.

Hodei Egiluzen hilotza aurkitu zutenean Anberesen, zer sentitu zenuen?

Oso txarto sentitu nintzen, Hodeiren familiari lagundu izan diodalako hasieratik. SOS Desagertuak Euskadi elkarteko koordinatzailea naiz, eta nire antzean dauden pertsonen laguntzen ahalegintzen naiz.

Hodeiren kasuak mobilizazio handia eragin du. Zuk laguntzarik jaso duzu 11 urtean?

Ni bakarrik egon naiz, negarrez hasiko nintzateke bakar batek lagundu izan balit. Hala ere, halako kasuetan ezin gara egon alkateen edo herri baten mobilizazioaren zain. Euren kolaborazioa eskatzen dugu, bai, baina nire ustez beharrezkoa da protokolo bat ezartzea desagertuen kasuan. ◀

elkarrizketa osoa: www.hiruka.eus

GetxoGas

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

KONTXI ZVZVBIZKAR
Urdaitegixa

Kalitatezko olikgaiak zure mahaian

Alangobarri 10, ALGORTA - 94 491 02 93

OSABIDE Hertz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GOIZEAN
«Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez prentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak
Aldizkariak · Libxarreriak

Orduña mendatea, 1. GETXO - 94 430 22 13

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kaitza, 18-48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 - 607 952 977
rgaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz

Getxo

Algortako San Nikolas plazan, lehengo kioskoa gura dute

Obrak hasi baino lehenago plazan zegoen kioskoa ipintzeko sinadurak batzen hasi dira; 8.000 izen batu behar dituzte.

Sei urte igaro dira, Getxoko Udalak Algortako San Nikolas plaza desegin eta Getxo Antzoki berria eraikitzeko lanak abiatu zituenetik. 2014an zabaldu zuten plaza berria, eta ordutik gaur egunera arte, apurka-apurka, ingurua osatzen ibili da Udala. Hala, lehenagoaren eta oraingoaren artean badira hamaika itxura-aldaketa.

San Nikolas plazaren erabateko transformazio horrek ezinezkoa sorrarazi du udalerriko hainbat bizilagunen artean, aurreko plaza gurago zutenen artean, hain zuzen ere. Berbarako, hilaren hasieran, San Nikolas plazaren ondoko Basagoiti etorbideko Ondarreta litxarrerria-dendak sinadura-batze bat abiatu du, lehengo plaza berreskuratzea ezinezkoa dela jakinda

ere, behintzat lehengo kioskoa berreskuratzeke. Horrez gainera, ekimen horregaz, inguruaren antolaketa auzotar guztien gustukoa ez dela salatu gura dute. Hala, daborduko 1.500 sinadura baino gehiago batu dituzte. Kartela ere ipini dute Ondarreta litxarrerria-dendaren erakusleihoan, eta honela dio: «Anima zaitetz sinatzera, eta, bide batez, alkateari eskatzera kioskoa jartzera». Erronka 8.000 sinadura batzea da, gaia Udalbatzara eroan eta bertan eztabaidatu ahal izateko. Sinadurabilletaren deitzaileek proposatu dutenez, kioskoa frontoiaren parean jar daiteke, 50eko hamarkadan zegoen bezala. Izan ere, hiru hamarkada beranduago, plazaren zaharberitzeagaz batera, kioskoa enparantzaren erdigunean ezarri zuten, 2010era arte egon zen lekuan, hain zuzen ere.

Kioskoaren gabeziak gainera, auzokide askoren artean, kritika eragin dute plaza berriaren beste hainbat elementuk, berbarako: hormigoizko eskailerek, bankuek, hesi berriak eta plazaren bazter batean ipini duten erabilera askotariko dorreak. ◀

50eko hamarkada



2016ko maiatza

Nagusien etxearen galdeketa ez da maiatzean eztabaidatuko

Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxea leku aldatzearen harira, auzoan sortzen dabilen ezinezona «ezkuta ezina» dela uste du Getxoko EH Bilduk. Izan ere, gogoratu duenez, «bertako auzotarrek hilabeteak daroatzate lekualdatze hori geldiarazi guran». Horretarako, auzoan hainbat ekimen egin dituzte, eta, ondorioz, «auzoan sortzen ari den tentsioa gero eta handiagoa da», ohartarazi du koalizio abertzaleak: «horren lekuko izaten ari da Nagusien Etxeko Zuzendaritza Kontseilua. Azken Kontseiluan, eztabaida dialektikoa berotzen hasi zenean, bertan parte hartzen duen udal langile bat Kontseiluko kide batengana

modu onartezinean zuzendu zen, hura mehatxatuz». Hala, horri aurre egiteko asmoz, Itzubaltzeta/Romon eta Areetan nagusien etxearen etorkizuna erabakitzeke galdeketa egitea proposatu gura du EH Bilduk. Horretarako, maiatzeko udalbatzan gaia eztabaidatzeko proposamena aurkeztu zuten Lehendakaritza eta Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatiboan, urgentziazko prozedura erabiliz, puntu hori gai-ordenan jarri zezaten eskatuz. Ostera, maiatzean, «proposamenaren edukia eztabaidatzea ezinezkoa» izango dela deitoratu du EH Bilduk, «urgentzia onartzearen aurka» bozkatu dutelako EAJ, PSE eta PP alderdiek. ◀

PPk segurtasun-armairuak ezarri gura ditu hondartzetan

Getxoko hondartza guztietan, segurtasun-armairuak ezartzea gura du PPK. Hala, popularrek hori eskatzen duen mozi bat aurkeztu du udalbatzan. Iñaki Gamero PPrez bozemaileak zehaztu duenez, «gutxi barru hasiko da ofizialki uda-sasoia, eta hondartzak prest izan behar ditugu, bertokoen zein turisten egonaldia ahalik eta erosoena izan dadin zerbitzuak eskaintzeko». Proposatu dutenez, armairuak orduen, egunen zein neurrien arabera aloka daitezke, kode batez edo giltza duen pultsera batez, armairuen arduradunak ere izan ditzan, kanpoaldean zein barrualdean. ◀

info+: www.hiruka.eus

Elkartasun Gaua egingo dute zapatuan Txorimalo gaztetxean

Urtero legez, «Euskal preso eta iheslariak etxera aldarrikapena egingez», zapatu honetan, maiatzaren 28an, Elkartasun Gaua egingo dute Txorimalo gaztetxean. Hala, 20:30etik aurrera, Hexen, Shock Waves eta Coca D' Anxoba musika-taldeek kontzertua eskainiko dute Getxo aldeko zentro autogestionatuan. Ekitaldirako sarre-ra 4 euroan egongo da, eta egunean bertan gaztetxean erosi ahal izango dira. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa (EPPK) osatzen duten lagunetak, zortzi dira Getxo udalerriko bizilagunak. Horietako bat Frantziako Estatuan preso dago, eta gainerakoak, Espainiako kartzeletan. ◀



AIXERROTA BHI IKASTETXEA

Batxillergoak: • Teknologikoa • Natur eta Osasun Zientziak • Giza eta Gizarte Zientziak
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) B eta D ereduak
Zereginak ikasteko gela (A eta D ereduak)

Informazio gehiago: www.aixerrotabhi.net • 94 491 17 86

prentsa • aldizkariak



Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

Erandoio

Gorpuzti jaien aitzakia baliatuta

Hamaika jairen denboraldia estreinatuko du aste-akabu honetan Erandiogoikoak. Gorpuzti jaien ostean, udalerriko beste festa denak bata bestearen atzean etorriko dira.



Egueneko eta zapatuko otorduak txartelak salgai daude Dandakan. © ERANDIOKO UDALA

Eguenetik domekara, jaietan murgilduta ibiliko dira Erandiogoikoko auzotarrak eta bisitariak. Goi-Alde dantza taldeak eta musikak presentzia handia izango dute. Besteak beste, honakoekin doinuak izango dira entzungai: Akerbeltz eta Oxabi erromeria-taldeak, txistulariak, Itzubaltzeta/Romoko Erromoko Kantariak, eta 25. urteurrena ospatzen dabiltzan Erandioko Udal Musika Eskolako ikasleak. Gazteen giroan murgiltzeaz gainera, sendiek eta neska-mutiek ere izango dute zertaz gozatu. Hala, azkarrenek buruhandiak xaxatzeko aukera izango dute egunean, 19:45ean; geldoenek, ostera, kontuz ibili beharko dute, puxikakaz jo ez ditzaten. Plan lasaiagoa izango da Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasena; barikuan izango da, 18:00etan. Zapatuan, puzgarriak eta pailazoak izango dira, 16:00etan. ◀

Ekitaldi batzuk

Maiatzak 26, eguena

19:30 Txupina eta jaien hasiera, lehengo udaletxean.

19:45 Buruhandiak eta poteoa txarangagaz.

21:30 Afaia (15 euro; txartelak Dandakan).

23:30 Erromeria, Akerbeltz taldeagaz.

Maiatzak 27, barikua

18:00 Olgetan Solas, familiarteko kirol-jolasak.

21:00 Herri-afaria (saiheski erre).

24:00 Erromeria, Oxabi taldeagaz.

Maiatzak 28, zapatua

12:00 Txistulari eta dantzarien kalejira, eta Goi-Alderaren dantza-erakustaldia.

15:00 Herri-bazkaria (paella; 5 euroko txartelak salgai Dandakan).

24:00 Erromeria, Honat taldeagaz.

Maiatzak 29, domeka

17:00 Pailazoak.

19:00 Txixi-burruntzia.

Adinekoen ekimenak sustatu gura dituzte

Erandioko Udal Gizarte Ongizate Sailak eta Gaurko Nagusia fundazioak lehiaketa antolatu dute, udalerriko adinekoen ekimenak sartzeko eta bultzatzeko. Herriaren mesederako aurkeztutako proiekturik onenak 700 euro eta Puntuaren programaren 200 puntu irabaziko ditu. Interesa duten pertsonak zein taldeek astelehenera arte, hilak 30, aurkeztu ahal izango dituzte euren proposamenak. Gainera, Udal Gizarte Ongizate Sailagaz harremanetan ipiniz gero, aholkua eta laguntza jasoko dituzte, dauzkaten baliabideak edo sor ditzaketan kon-

tuan hartuta. Hala ere, proiektuak ez dituzte azaldu behar izango urriaren 14ra arte. Proiektu horiek berriak zein martxan dabilen jarduera batekoak izan daitezke. Epaimahaia udal langile eta pertsona ezagun batzuek osatuko dute. Irabazle bat eta hiru finalista hautatuko dituzte, honako irizpideak kontuan hartuta: egindako ekarpena, gizarte-eskaria, originaltasuna eta zailtasuna, egileen egoeragaz batera.

Epaimahaikideen epaia jendarearen jakinaraziko dute datorren azaroaren 4ko Omenaldi Galan. ◀

info+: bsocial@erandioko-udala.net / 944 890 172

Txirrindulariak, Batzar Nagusietan

Erandioko Txirrindulari Elkarteak (ETE) Bizkaiko Batzar Nagusietaraino eroan du «Marra Gorria. Bizitzarako 1,5 metro» izeneko ekimena. Carmelo Bizkarra eta Oscar Moreno kirol-talde erandioztarraren ordezkariak pasa den maiatzaren 13an izan ziren Aldundiko Eskarretarako eta Herriarreganako Hartu-emonetarako Batzordean. Bertan, 1999tik aldarrikatzen dabiltzan marra gorriaren eskerra berretsi zuten. Urte hartan Erandioko txirrindulari bat hil zen, bizikletaz zebilela, auto batek harrapatuta. Orduetik, errepideetan bazterbidetik 1,5



Segurtasuna da ETEren lehentasuna. © ETE

metrorra marra gorri bat margotzea eskatzen dabiltza erandioztarrak, inbertsio txiki batez auto-gidariak kontzientziatu, eta txirrindulariek zikloturismoa ahalik eta seguruena egin ahal izateko. ◀

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25


OBRAK ETA ZERBITZUAK

- Soropila ezartzea, zaintzea eta mantentzea
- Inausketak
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A behe, 812 Lokala (ERANDIO)
629 41 18 38 · 94 467 17 13
luberri@luberri.biz
www.luberri.biz

Erandiotik Iruñeko manifestaziora joateko autobusa

Berbots euskaltzaleen topaguneak autobusa ipiniko du ekainaren 4an, zapatua, Kontseiluak Iruñean egingo duen manifestaziora joateko. Protesta «Bide eman euskarari, euskaraz bizi nahi dugu» goiburuean irtengo da 17:30etik Golem zineetatik. Autobusa goizeko 11:00etan irtengo da Altzagako metro-geltokitik. Ekainaren zera arte izena eman daiteke. ◀

izen-ematea: berbots@gmail.com

Leioa

Jaiak prest Lamiakon

Maiatzaren 27tik 29ra ospatuko dituzte San Maximo jaiak; ekitaldi asko egongo dira.

Bariku honetan, maiatzak 27, hasiko dira San Maximo jaiak, Lamiakon; domekara arte, hamaika ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da auzoan. Urtero egiten dituzten lehiaketak ez dira faltako: igel-toka, sukaldaritza, tiragoma, mozorro, txapel-jaurtiketa eta play-backa. Horrez gainera, txikienek globoflexiaren gaineko tailerra eta puzgarriak izango dituzte. Gauaz gozatzeko, berriz, Sandalo eta Galker taldeek girotuko dituzte bariku eta zapatuko dantzaldiak; domekan, oster, goatekea egingo dute, Iker Fernandezegaz. Baina, zalantza barik, Lamiako Maskarada da festei zein auzoari ize-



Maskaradagaz hasiko dira ospakizunak.

na eta izana ematen dien ikuskizuna; 1978tik antzezten dute.

Hala, barikuan, 17:30ean, Putzegilearen errotondatik kalejiran abiatuko dira Maskaradako partaideak, txosna-ingururaino. 18:30ean, oster, Mari eta Sugaar bere senarra agertuko

dira Lamiaren eskulturaren ondoan. Joan-etorria egingo dute Txopoetako garbitegiraino, bidean pertsonaia mitologikoakaz dantzatu, eta gaueko akelarrera gonbidatuko dituzte. Hain zuzen ere, 22:30etik aurrera, suaren inguruan dantzan egingo dute. ◀

Ekitaldi batzuk

Maiatzak 27, barikua

16:30 Txupinazoa eta jaien hasiera.
17:30 Maskaradaren lehenengo zatiaren hasiera, Putzegilearen biribilgunean.
18:30 Maskaradaren bigarren zatia, txosnaren ondoan.
22:30 Maskaradaren hirugarren zatia, elizaren ondoan.
24:00 Dantzaldia, Sandalo taldeagaz.

Maiatzak 28, zapatua

08:00 Lamiakoko III. Lapiko Txapelketa. Izen-ematea, txosnan.
11:00 Umeentzako globoflexia-tailerra.
14:30 Lapikoen aurkezpena.
18:00 Euskal dantzen erakustaldia, elizan.
22:30 La Vikinga umoristaren saioa.
24:00 Dantzaldia Galker taldeagaz.

Maiatzak 29, domeka

11:00 Umeentzako puzgarriak.
13:00 Herri-kirolen erakustaldia.
14:30 Txapel-jaurtiketaren XI. Lehiaketa.
17:30 XVII. Play-back Txapelketa. Parte hartzeko, ez dago adin-mugarik.
18:00 Goatekea, Iker Fernandezegaz.
20:00 Sari-banaketa.
21:00 Azkenengo traka.



Etorkinei laguntza juridikoa emango die Leioako Udalak

Leioako Gizarte Zerbitzuek Bidea Eginez programa martxan ipini dute, etorkinei laguntza juridikoa emateko asmoz. «Batez ere, etorkinen ahalduntzearen alde egiten du egitasmo horrek, baina betiko leioaztarrei ere laguntzen die hainbat arlotan», agintari leioaztarrek aipatu dutenez. Ohiko lan-tresnak eta berriak eskainiko zaizkie: atzerri-zuzenbidean aditua den pertsona batez gaur aurreko saioak izateaz gainera, psikologia eta partaidetza sustatzen dituzten jarduerak antolatuko dituzte; berbarako, etorkinen beharrianak eta eskaerak bereizten laguntzen duten talde-saioak. Bestalde, Bidea Eginez



© LEIOAKO UDALA

programak lan-tresnak eta laguntza eskainiko dizkie etorkinei, Lanbiden tramiteak egin ahal izateko; Leioan jaiotakoei ere zuzendutako udal zerbitzua da lanaren ingurukoa. ◀

info+: 944 801 336

Iñaki San Juani isuna jartzea eskatu du Eusko Jaurlaritzak

De Miguel edo Miñao sumarioko zazpi auzipeturi, ia 222.000 euroko isun bateratu bat ezartzea eskatu du Eusko Jaurlaritzak; Leioako EAJko Kultura zinegotzi izandako Iñaki San Juani ere isuna ipiniko liokete, beste batzuen artean. Daborduko, Iñigo Urkulluren gobernuak akusazio-identzia igorri du. Akusatuek aurkeztutako helegiteak atzera bota zituen azaroan Arabako Lurralde Auzitegiak. Kontuak horrela, ahozko epaiketa egingo diete 26 auziperatuei. Ustez, legez kanpoko komisioak kobratzen zituzten. Epaiaketaren data ez dago zehaztuta; San Juanentzat 19 urte eta hilabeteko espetxe-zigorra eskatzen dute. ◀

Bilbaok eta beste auziperatuek kartzela ekidin dezakete

Erika Bilbao eta beste zortzi euskal herritar epaitzen hasi ziren maiatzaren 17an, Madrilan; egun horretan, akordioa lortu zuten Fiskaltzak, akusazioek eta abokatuek. Hala, espetxea saihesten ahaleginduko dira akusatuak: Ugaitz Elizarani bi urte eta hiru hilabeteko zigorra jartzea onartu dute; Sandra Barrenetxeari, urtebete eta bederatz hilekoa, eta gainerakoei, bina urte. Horretarako, *Segurako auzian* epaitutakoen antzeko testu bat onartu dute. Fiskalak eta akusazioek eskatu dute zigorrak bertan behera uztea, eta Elizarani baldintzapeko askatasuna ematea. Epaimahaiak eskaera onartzea espero dute. ◀

digitala
 impresio
Leioa
KOPILEIOA
Inprimatze Digitala
Formatu Guztietan
Z/b eta Koloretan
KOPILEIOA
 sabino arana 82 - 48940 leioa
 tel 944649176 - fax 944014431
 monkopileioa@gmail.com

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
 94 464 23 64/94 464 33 07
 info@betikoikastola.net
 www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Nace Schools taldean sartu da St George's ikastetxe leioztarra

Daborduko, Nace Schools taldeko kidea da Artatzagane auzoko St George's English School hezkuntza-zentroa. Horrek metodologia eta teknologia berriak probatzeko aukera emango dio ikastetxe leioztarrari. Nace School taldea Espainian, Frantzia, Erresuma Batuan eta Indian dauden 20 eskolak osatzen dute; 10.000 ikaslek baino gehiagok ikasten dute horietan guztietan. ◀

Sopela

Txosnak, herrian; baina, Loroñon

Txosnen gainean akordioa lortu dute Sopelako Udalak eta jai-batzordeak. Loroñon ipiniko dituzte, herrian.

Sopelako txosnak Loroñon ala herrian. Azken hamarkada osoan, dikotomia hori egon da; 2006an hasi zen. Urte hartan, Imanol Garai alkate jeltxidearen taldeak erabaki zuen udaletxearen alboko plazan edo Jauregizar plazan izandako txosnak Loroñoko aparkalekura aldatzea. EAJko kideen berbetan, «gure ustez San Pedro jaietako txosnentzat oso egokia izan daitekeen orubea prestatu dugu, Loroño kaleko aparkalekua». Halere, lehenengo unetik, erabaki horren aurka egin zuten jai-ba-

tzordeak eta txosnak ipintzen zituzten kolektiboek, Ezker Batuagaz eta ezker abertzaleagaz batera. Salatu zuten Loroñok hainbat arrisku metatuko zuela, garrantzitsuenak: trafiko asko eta arina duen Plentziarako errepidea, parkingaren ondoko troka, eta Loroño eta udaletxearen bitarteko bidea, emakumezkoen segurtasunerako «puntu beltz» legez izendatu baitzuten. Horrez gainera, txosnak herritik «erbesteratzea» gaitzetsi zuten. Alternatiba legez, San Pedro elizaren ondoko plaza aurkeztu zuten txosnetakoek. Urte hartan, ez zen probarik egin, kolektiboek udaletxearen alboko zelaietan txosna «ilegal» bi ipini zituztelako, Loroñora joateko aginduari eta Udal Gobernuari «desobedientzia eginda». Hortaz, 2007an estreinatu zen Loroñoko txosnagunea, Udalak hainbat segurtasun-neurri har-



Txosna-gunearen eztabaidak «gure lana atzeratu» duela kexatu da jai-batzordea. © SOPELAKO J. B.

tuta, batez ere trokarako bidea ebakitzeko. Halere, Txosna Batzordea kexatu egin zen, hurrengo urteetan legez. 2011n, Bilduko Saioa Villanueva alkatearen Udal Gobernuak txosnak elizara lekuz aldatu zituen, jai-batzordearen, txosnetakoek eta hainbat tabernariren

babesagaz. EAJk gogor kritikatu zuen erabakia. Aurten, berriro ere aldatuko da, Jauregizar plazaren lanak direla-eta. Udalak eta jai-batzordeak hainbat gune aztertu eta hau adostu dute: Aki-lino Arriola kaletik abiatuta, Loroño kalean bertan, udaletxearen ondoan. ◀

Eskola publikoaren jaira joateko autobusa ipini dute

Sopelako Udalak eta Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak autobus-zerbitzua eskainiko dute Euskal Eskola Publikoaren Jaira bertaratu gura dutenentzat. Ekainaren 5ean, Hendaian egingo den jaiaren goiburua *Emazu eskua* da, eta horregaz irudikatu gura izan dute «elkarri eskua eta elkarri euskara emateak duen garrantzia gure hizkuntzaren etorkizunerako», Sopelako Udalak zabaldu duenez. Hori dela-eta, euskara Ipar eta Hego Euskal Herriko ikasle, irakasle eta gurasoen arteko komunikazio-tresna izatea bilatu dute. Autobus-zerbitzua martxan jartzeko, gutxienez 15 pertsonak izena



© EHIGE

eman beharko du. Inskripzio-epela hilaren 31ra arte egongo da zabalik. Interesdunek udaletxean, Sopelarinen, Kurtzion eta udal webgunean egin dezakete izen-ematea. ◀

info+: Sopelaudala.org

Grease antzeztuko dute Iberreko ikasleek, Kurtzion

Sopelako Iberre 2. hezkuntzako institutuko 4. mailako hainbat ikaslek *Grease* musikala antzeztuko dute barikuan, hilaren 27an. Antzezlanaren taularatuko duten neska-mutilak institutuko Eleaniztasunerantz proiektuan dabilta. Lana Kurtzio kultur etxean erakutsiko dute, doan, emanaldi bitan. Lehenengoa 12:00etan izango da, 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzat; eta 17:30ean, 4. mailakoek eta gurasoek izango dute ikusteko aukera. Antzezlanaren 1972an estreinatu zuten Jim Jacobs eta Warren Casey gidolarien. Halere, Olivia Newton-John eta John Travolta protagonista izan zituen 1978ko filmatik da ezaguna *Grease*. ◀

Atxabiribil kaleko lau tabernen terrazak eraitsi dituzte

Pasa den eguaztenean, hilak 25, hondeamakina batek Arriatera-Atxabiribil hondartzako tabernetako terrazak bota zituen. Hala, El Sitio, Sunset, Thai eta Bocateria ostatuek ez dute aurrerantzean terraza-zerbitzurik eskainiko, bolada batez behintzat. Sopelako Udalak agindu zuen 30 urtez hondartza ondoan izan diren egiturak eraistea, udal iturriek baieztatu dutenez. Hala ere, zehaztu dute, erabakia ez duela Udal Gobernuak hartu, epaileek barik. Orain dela aste bi, 20 eguneko epean eraispina egiteko epaile-agindua jaso zuen Udalak. Erabakiaren atzean, bide-zor baten urteetako auzia dago. ◀

Irunbat
galp energia

Loiola Ander Deuna, 74
48600 SOPELA
946 764 625
www.irunbat.net

MARTITZEN ETA ZAPATUETAN ESKAINTZA BEREZIA

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

ARTOLOZAGA
ANAIK
Tailerrak

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH
Service
Car Service

hau hezkuntzatik
ander deuna
batxilergora

Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus

Berango

Hondakin organikoak

Landare-jatorriko zaborrari lotuta, saioak eta konposta egiteko ikastaroak antolatu dituzte.

Berangoko Udalak aurrera pauso bat eman gura du, zaborraren kudeaketaren harira. Izan ere, egunotan hondakin organikoak aprobetxatzeko hainbat jarduera antolatzen dabil, Bizkaiko Foru Aldundiagaz elkarlanean. Hala, joan den hilaren 20an egin legez, maiatzaren 27an eta 28an ere, landare-jatorria duten hondakinak batzeko edukiontzi marroiaren inguruan informazioa emateko hainbat gune ipiniko ditu Udalak. Barikuan, 10:00etatik 14:00etara Sabino Arana kalean egongo da horietako bat, eta 16:00etatik 20:00etara Berangoetako plazan beste bat; zapatuan,



Konposta egiteko edukiontziak banatuko dituzte, doan.

berriz, Santa Anan, Berango Antzokiko plazan egongo dira, 16:00etatik 20:00etara. Hondakin organikoak batzeko kitak banatuko dituzte, doan.

Horrez gainera, ortua edo lorategia dutenei zuzenduta, konpostatzen ikasteko ikastaroak ere antolatu ditu

Udalak. Ikastaroan, konposta egiteko edukiontziak banatuko dituzte, doan. Saioak hilaren 28an eta ekainaren 2an izango dira, Santa Ana kultur etxean, 11:00etatik 12:30era eta 19:00etatik 20:30era, hurrenez hurren. ◀

info+: www.berango.net

Ikasturte amaierako erakustaldia, zapatuan Antzokian

Eguzkiaren epeltasunak erakusten du uda ate joka dugula. Horregaz batera, joan den udagoienean hasitako ikasturteari amaiera emateko ordua heldu da, baita ikasturtearen hasieragaz batera abiatutako ikastaroei ere. Hori horrela, hilabeteetan ikasitako eta hartutako trebeziak erakusteko garaia ere bada. Hala, Berangoko Kultur Etxeak ikasturte osoan antolatutako ikastaroetan parte hartu duten guztiek erakustaldia eskainiko dute zapatu honetan, hilaren 28an, Berango Antzokian. Hain zuzen ere, saio horretan parte hartuko dute areto-dantzakoek eta dantza modernoek. Eurakaz batera, Nagusien Etxeko abesbatzak kantaldia eskainiko du, bertaratutako guztien gozamenerako. Saioa arrastiko 07:00etan hasiko da, esan legez, Berango Antzokian. Sarre-ra doakoa izango dela jakinarazi dute antolatzaileek. ◀

info+: www.berango.net

Barrika

Ekainaren 12ko Argazkilaritza Rallyrako izen-ematea, zabalik



Lehenengo saria garaikurra eta 400 euroko balioa duen erosketa-txartela izango da.

Joan den urteko edizioak izan zuen arrakastaren ondoren, dena prest dago Barrikan Argazkilaritza Rallyaren bigarren ediziorako. Aurten, lehiaketa ekainaren 12an izango da, domekan. Parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik izena eman beharko dute, ekainaren 3a baino lehenago; halere, behin betiko izen-ematea egunean bertan egingo da, 09:00etatik 09:45era, Barrikako frontoian. Txapelketa, berriz, goizeko 10:00etan hasiko da. Hala, 18 urtetik gorako argazkilaritza-zaleek parte hartuko dute. Gehienez, 50 parte-hartzaile egon daitezke;

argazkilaria profesionalak, ostera, ezin izango dute parte hartu. Parte-hartzaileek argazki-kamera digitala eta ekipoa eroan beharko dituzte. Antolatzailerak memoria-txartel bana emanango diote partaide bakoitzari. Azaldu dutenez, argazkiak Barrikako mugen barruan egin beharko dituzte. Antolatzailerak 45 minutuan behin gai bat jakinaraziko dute; hala, guztira gai bakoitzagaz lotutako argazki bat aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek amaieran, eta guztira, lau argazki; denak, 13:45ak baino lehenago. ◀

info+: www.barrika.eu

Urduliz

Ospitalean bertoko ekoizleen elikagaiak erabiltzea gura dute

Urdulizko ospitalea zabaltzeaz dago; halere, eraikinak oraindino ere hainbat zalantza sortzen ditu inguruko bizilagunen artean. Hala, osasun-etxeak eskainiko dituen zerbitzuen gainera, badira beste ezinegon batzuk; horien artean, bertako sukaldeak eskainiko dituen jakien ingurukoa. Urduliz Rural plataformak KM o proiektua martxan jarri gura du, ospitalean erabiliko diren jakiak eskualdeko produktoreek ekoiztutakoak izan daitezken. Izan ere, euren arabera, sistema horrek hainbat onura ekar ditzake, berbarako garraioa gutxitu, lana sortu eta elikadura hobetzea. Horretarako, sinadurak batzen

hasi dira *Change.org* plataforman. Hori lotuta, Legebiltzarrak EH Bilduren hainbat proposamen onartu ditu, esaterako elikagai ekologikoen erabilera sustatzea, «bultzada bat eman dakion eskualde horretako ekonomiari». Bestalde, garraioaren harira, Uribe Ospitalea plataformako kideek auto-ilara bat egingo dute barikuan, hilaren 27an, Sopela eta Urduliz artean, 17:00etatik aurrera. Ekimen horregaz ikustarazi gura dituzte ospitalearen irekierak sor ditzakeen trafiko «arazoak». Izan ere, iragarri dute etorkizunean «4.000 auto» inguru ibiliko direla Sopela eta Urdulizko herri barruan. ◀

Urdulizek diru-laguntza eman die Siriako ume errefuxiatuei

Joan den astelehen goizean, hilaren 23an, Urdulizko Udalak eta UME Urdulizko Merkatarien Elkarteak 1.725 euro eman zizkieten Unicef nazioarteko erakundeari, Siriako ume errefuxiatuei euren elkartasuna helaraz diezaien. Diru hori batu dute azken boladan antolatutako elkartasun-jardueretan: Txiri-txiri, UMEren zozketa eta Opus 4 taldearen kontzertua. ◀



© URDULIZKO UDALA

Uribe Kosta

Herri-galdeketa egingo dute 2017ko apirilaren 2an

Joan den domekan, Sopelan, erabakitze eskubidea gauzatzeko herri-galdeketa antolatuko duen 150 lagun inguruko Batzorde Sustatzailea aurkeztu zuten: Uribe Kostako ADOS elkarteak. Barrikako, Lemoizeko, Urduizeko eta Sopelako Gure Esku Dago dinamikak sortu dute elkarte berria, galdeketa prozesua aurrera eramateko. Aurreratu dutenez, «aukera zabalik dago eskualdeko herri gehiagoko prozesura batzeko». Daborduko, behar hasi dira: herri-galdeketa egiteko sinadurak batzen dabilta. ◀

info+: www.hiruka.eus

Eudelek Imanol Landa berretsi du presidente izateko

Eudel EAEko Udalerrien Elkarteak hautagaitza bateratua berretsi du; hala, Imanol Landa Getxoko alkateak elkarte-buru izaten segituko du. Era beran, Lurralde Batzordeak berrizatu dituzte; hala, Bizkaiko Lurralde Batzordean egongo dira Mari Carmen Urbietta Leioako alkatea (EAJ) eta David Crestelo Plentziako alkatea (EH Bildu), besteak beste. ◀

Prekariatatea salatuko du LABek zapatuan, Bilbon

LABeko Uribe Kostako ordezkariak ldein egin du hilaren 28an, Bilbon sindikatuak egingo duen nazio-mobilizazioan parte hartzeri. «Euskal Herria prekariatatearen kontra» deialdia 17:30ean abiatuko da; bizkaitarrek udaltxean dute zita. «Mobilizazio anitza eta dinamikoa izango da, prekariatatea gogorki pairatzen duten langileei hitza emango diena», azaldu dute. ◀



Topaketak Danontzat gaztetxean izango dira, Plentzian.

Alternatibak sortzeko topaketak, zapatuan

Uribe Kostako gazte-mugimenduko kideek askotariko alternatibak sortzen hasteko lehenengo pausoa eman gura dute zapatuan, eskualdeko gazte-topaketetan.

La hiru hileko lanaren ostean, Uribe Kostako gazte-mugimenduko hainbat kidek gazte-topaketak antolatu dituzte zapatu honetarako, hilaren 28an. Antolatzaileek iragarri dutenez, eskualdeko herri guztietako gazteek, eta motibazio zein interes desberdinak dituztenek aukera izango dute elkartzeko, elkar ezagutzeko, sareak sortzeko eta alternatiben inguruan berba egiteko, besteak beste.

Jardunaldiak Plentzia-Gorlizko Danontzat gaztetxean izango dira, goizeko 10:00etatik aurrera. Horretarako, egitarau zabala duen egun osoko proposamena prestatu dute; hala, feminismoaz hausnartu, musikazaleen artean sareak sortu, alternatiba sozioekonomiko berriak ezagutu, eta komunikazioaren inguruan jardungo dute. Azken horretarako, HIRUKA eta Topatu komunikazio-proiektuetako

kideek parte hartuko dute, euren egitasmoen nondik norakoak azaltzeko, besteak beste. Horrez gainera, gune autogestionatura hurbiltzen direnek beste hainbat esparruren inguruan hitz egiteko aukera izango dute. ◀

Egitaraua

Maiatzak 28, zapatua

10:00-10:30 Hasiarako jolasa.

10:30-11:00 Topaketak, hasi.

11:00-12:30 Feminismoa.

12:30-14:00 Musika / Alternatiba sozioekonomikoak / Proiektu komunikatiboak.

14:00-15:15 Bazkaria.

15:15-16:45 Kirola / Gaztetxeak / Sorkuntza.

16:45-18:30 Agroekologia / Hezkuntza alternatiboa.

18:30-19:30 Jolas kooperatiboak.

19:30-20:30 Topaketak, amaitu.



Tximiskeriak!!

AITOR GARAGARZA CAMBRA
Langilea

Plentziako jendarteak likidoa al da?

Udako jaiak gertu daude, Plentzian guztira 7 jai ospatzen ditugu, jaietako aurrekontua 70 mila euro ingurukoa delarik. Jaien antolaketarako batzordea osatu egiten da, eta honek udaletxearekin elkarlanean jarduten du jaiak prestatzen.

Orain honetan ez dut jaien edukien inguruan, programazioaren egokitasunaz, kontzertuez, ezta orain dela bi urte su artifizialak kendu izanaz ere hitz egingo. Mahai-gaineratu nahi dudana kontua beste bat da.

Gaur eztabaidagai ekarri nahi ditut jendartearen parte hartze-formak herriak sortarazten dituen ekimenetan, kirol jardueretan, proposamen desberdinetan... Bauman soziologoak dio bizi garen garai postmodernoan jendarte gero eta likidoagoa dela. Besteak beste, dena produktuak balira bezala tratatzen ditugulako. *Kleenx* zapien kultura gero eta errotuago dago. Hau da, hartu, erabili eta bota; prozesua bertan bukatzen da.

Gure herriko jaiekin antzeko zeozer gertatzen da, gurasoek haien seme-alabak haur jokoetan uzten dituzte haur eskola izango balitz bezala, beste batzuk *play back* edo mozorro lehiaketara aurkeztu dira, baina gero ez dute tutik ere egiten. Enpresa pribatu edo ekimen herritar batek *play back* lehiaketa antolatzea bost axola zaie. Askok ez dute diferentziatzen txosnako laguntzaile eta diskoteka bateko *kamarero*aren artean. Nahi duten bakarra: hartu, erabili eta bota; ezer gehiagori erreparatu gabe. Horren beste gertatzen da kirol elkartean.

Funtsean, eztabaida ideologiko sakona dago, orain arte, hainbat esparrutan hegemonikoak izan diren auzolanaren zein kolektibotasunaren eta neoliberalismoak bultzatzen duen indibidualizazio zein jendarte berekoiren artean. Nola eutsi auzolanari? ◀

XURRUT X
Pizza Bar · Musika zuzenean
946 77 13 89 · GORLIZ · www.xurrut.com

hiruka zaitez!
Urtean 35€ baino ez
Trukean: zozketak, sariak ia astero, astekaria eguztenero...

94 657 15 24
685 764 662
info@kumarazentroa.com
Kumara zentroa
www.kumarazentroa.com
TERAPIA ALTERNATIBOAK ETA ESTETIKA

Albuma





A rte eszenikoen erakusleiho, kale-artisten topaleku, oholtza gainekez gozatzeko kaletarren egundoko aukera... lau eguneko Umore Azoka izan da Leioa. Aurten, ikusle-kopurua izugarri handitu da, 38.000 lagun inguru hurreratu ziren eskainitako 122 ikuskizunetara (3 bertan behera utzi zituzten). Antolatzaileen iritziz, «edizio biribila» izan da (ikus. 15 orrialdea).

Umore Azoka 2016



hirukagenda

Uribe Kostako asfekaria

2016ko maiatzaren 26tik ekainaren 1era arte



hiruka.eus



LEIOA

Maskaradak hartuko du Lamiako, bariku honetan

Maiatzaren 27an, bariku honetan, hasiko dira San Maximo jaiak, Lamiakon; domekara arte hamaika ekitaldi gozatzeko aukera egongo da Leioako auzo horretan. Besteak beste, lehenengo egunean, kaleetan barrena ibiliko dira Mari, Aker, Inguma eta beste hainbat pertsonaia mitologiko; izan ere, 1978tik gaur artean, Euskal Herriko mitologiaren antzezpena egi-

ten dute urtero Lamiako Maskarada kultur elkarteko kideek.

Hala, bariku arrastian, 17:30ean, Gaztelubide kaleko Putzegilearen errotondatik kalejiran abiatuko dira Maskaradako partaideak, Lamiakoko metro-geltokiraino; Maiatzak, erraldiek, fanfarreak eta herriko dantzariak maskaradaren etorrera iragarriko dute. 18:30ean, berriz, Mari eta

Sugaar bere bikotea agertuko dira Lamiaren eskulturaren ondoan. Besteak beste, joan-etorria egingo dute Txopoetako garbitegiraino, bidean pertsonaia mitologikoak dantzan egin, eta gaueko akelarrera gonbidatuko dituzte. Hain zuzen ere, 22:30etik aurrera, suaren inguruan dantzatuko dute batutako pertsonaiek, Lamiako-ko eliza alboan. ▶

2016/05/26 - 17:30 - 19:30

Zientzia-tailerra

Ontziola plaza | Plentzia

Euskeraz Olgetan egitasmoaren barruan. Hilaren 27an, 28an eta 29an ere eskainiko dute hurrenez hurren Urdulizko Antsonetako plazan (17:30-19:30), Gorlizko Ibarreta plazan (12:00-14:00) eta Sopedako Jauregizar plazan (12:00-14:00). Doan.

2016/05/26 - 18:00

Requisitos para ser una persona normal pelikula

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Itzartu emakumeen elkarteak antolatuta. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/26 - 19:30

Berbalidia Alaine Agirre idazle bermeotarragaz

Algortako kultur etxea | Getxo

UKITXek gonbidatuta. *X hil da* liburua hitz egingo du Agirrek. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/05/26 - 19:30

Komunikatuz eraldatu jardunaldien azken saioa

Algortako kultur etxea | Getxo

Herri indigenek egindako dokumentalak eta berbalidia. Gonbidatua: Mariano Estrada komunikatzaile eta zinemagile mexikarra. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/26 - 19:30

Ibarbengoako parkingaren aurkako jardunaldia

Tosuko landa | Getxo

Si hay alternativa al pino y al eucalipto berbalidia. Keko Alonso biologiagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/26 - 20:00

Rio-Rico Guitarr Ensemble talde japoniarren kontzertua

Areetako musika-eskola | Getxo

Sarrera, doan.

2016/05/26 - 23:30

Akerbeltz musika-taldea

Erandiogoikoa | Erandio

Gorputzi jaien barruan.

2016/05/27 - 12:00 / 17:30

Grease musikala

Kurtzio kultur etxea | Sopela

Iberre Institutuko BHIko 4. mailako ikasleakaz. Eleaniztasunerantz proiektuan daude-eta. Lehenengo saioa 1. eta 3. mailako ikasleentzat izango da, hurrengoak berriz /

2016/05/28 - 18:00

Tini: el gran cambio de Violetta pelikula

Kultur etxea | Urduliz

Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/05/28 - 19:00

Ratas antzezlan

Areetako musika-eskola | Getxo

Antzerki amateurra, Atakados taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

2016/05/28 - 19:00

Ikasturte amaierako erakustaldia

Berango Antzokia | Berango

Kultur etxeko aisialdi-ikastaroetakoek (areto-dantzak, dantza modernoa, eta abar) eta nagusien abesbatzak parte hartuko dute. Sarrera, doan.

2016/05/28 - 19:00

El séptimo enanito pelikula

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/05/28 - 20:00

Truman pelikula

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/05/28 - 20:15

El olivo pelikula

Kultur etxea | Urduliz

7 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.

2016/05/28 - 20:30

Elkartasun Gaua

Txorimalo gaztetxea | Getxo

Hexen, Shock Waves eta Coca D'anoxba taldeek joko dute. Sarrera: 4 euro (egunean bertan).

2016/05/28 - 20:30

Hey Mr. Neken rock-taldea

The Piper's taberna (Algorta) | Getxo

Tabernaren 15. urteurrena ospatuko dute. Doan.

2016/05/28 - 22:30

La Vikinga umoregilea

Txosna-ingurua (Lamiako) | Leioa

Lamiakoko San Maximo jaien barruan.

2016/05/28 - 24:00

Dantzaldia, Galcker taldeagaz

Txosna-ingurua (Lamiako) | Leioa

Lamiakoko San Maximo jaien barruan.

ERANDIO

Euskaraz olgetan, Erandiogoikoan

Aurten ere, *Olgetan solas* egitasmoaz gozatzeko aukera egongo da auzoetako festetan. Hala, kirol-jolasak euskaraz izango dituzte barikuan, maiatzak 27, Erandiogoikoko jaietara doazen ume eta gurasoek. Hitzordua 18:00etan da. ◀

SOPELA

Tom Txikiren filma ikusgai, Kurtzion

Domeka honetan, maiatzak 29, *Tom Txiki eta ispilu magikoa* izenburuko filma proiektatuko dute Kurtzio kultur etxean. Emanaldia arrastiko 06:00etan izango da, euskaraz; sarrera, doan. Familia osoari begirako filma da. ◀

GETXO

Bizikleta-mekanikako tailerra, familian

Ekainaren 29ko, eguena, bizikleta prest izateko oinarrizko tailerra antolatuko du Sendi egitasmoak; 6 urtetik gorako umeek parte har dezakete, euren gurasoekin. Ikastarua doakoa da. ◀

info+**685 732 963**

2016/05/28 - 24:00

Dantzaldia, Honat taldeagaz

Erandiogoikoa | Erandio

Gorpuzti jaien barruan.

2016/05/29 - 10:00

Mendi-irteera Ganekogortara

Armintzako autobus-geltokia | Lemoiz

Etrandarri euskal mendi-taldeagaz. 17:00etan egongo dira bueltan txangora doazanak. Izen-ematea: 688 602 121 (Maritan).

2016/05/29 - 11:30-13:30 / 17:00-19:30

Eskola-antzerki Jardunaldiak

Areetako musika-eskola | Getxo

Denera, 11 ikastetxetako ikasleek parte hartuko dute. Euskaraz eta gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/05/29 - 14:30

Txapel-jaurtiketaren lehiaketa

Txosna-ingurua (Lamiako) | Leioa

Lamiakoko San Maximo jaien barruan.

2016/05/29 - 17:30

Play-back Txapelketa

Txosna-ingurua (Lamiako) | Leioa

Lamiakoko San Maximo jaien barruan.

2016/05/29 - 19:00

Holala! Mon cheri antzezlan

Astrabuduko kultur etxea | Erandio

Emakumeak Eszenan zirkloaren barruan. Totum taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

2016/05/31 - 19:30

Plantas toxicas y venenosas del Pais Vasco berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo

Basozaleak elkarte mikologiko eta botanikoak antolatuta. Getxoko Jardunaldi Botanikoen barruan. Gabriel Vazquez Molinar berba egingo du. Gaztelaniaz. Doan.

2016/05/31 - 20:00

Hermosa juventud pelikula

Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo Zineforum zirkloaren barruan. 16 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz izango da. Sarrera: 2,50 euro.

2016/06/01 - 19:00

Preso politikoaren gaineko saioa

Algortako kultur etxea | Getxo

Iratzarrek eta Sortuk antolatuta. *Amnistiareanorabidean, preso eta iheslariak* etxera goibururpean. Juan Mari Olano eta Antton Lopez «Kubati» preso ohiek berba egingo dute. Parte-hartzea, libre.

2016/05/27 - 17:30

Parkean olgetan saioa

Aldapa parkea | Algorta

Sendi egitasmoak antolatuta. Gurasoak eta umeak euskaraz batera jolasteko saioa. Doan.

2016/05/27 - 18:00

Erromoko Kantarien saioa

Erandiogoikoa | Erandio

Gorpuzti jaien barruan.

2016/05/27 - 18:30

Ospitalearen trafiko-arazoaren

kontrako auto-karabana

Urko kiroldegiko aparkalekua | Urduliz

Urdulizko Ospitalea plataformaren ekimenez.

2016/05/27 - 24:00

Dantzaldia Oxabi taldeagaz

Erandiogoikoa | Erandio

Gorpuzti jaien barruan.

2016/05/28 - 08:00

Lapiko Txapelketa

Txosna-ingurua (Lamiako) | Leioa

Lamiakoko San Maximo jaien barruan.

Lehenengo orduan izena eman beharriko dute parte-hartzaileek; lapikoak, berri, 14:30ean aurkeztu beharriko dituzte.

2016/05/28 - 11:00-13:00

Getxo, abenturarako espazioa

izenburuko ginkana

Andra Mari kiroldegia | Getxo

Sendik antolatuta. 7 urtetik gorako umeentzat. Euskaraz. Izen-ematea: 685 732 963.

2016/05/28 - 16:00

Mahai-ostekoa, Taberna

lbiltariagaz

Erandiogoikoa | Erandio

Gorpuzti jaien barruan.

2016/05/28 - 16:30-20:30

Sexualitatea eta gorputzaren

jabetza jardunaldia

Itzubaltzetako nagusien etxea | Getxo

Itzubaltzetako Emakumeen Asanbladak antolatuta. Parte-hartzea, libre.

2016/05/28 - 17:00

Magiklown ikuskizuna

Erandiogoikoa | Erandio

Gorpuzti jaien barruan. Kuko, Truko eta Bolenweiller pailazoakaz. Euskaraz. Doan.



© LAUKOAK

Mendi-irteera: Algortatik Intxortara

Ikasturtearen amaierari begira, azken-aurreko txangoa prestatu dute Egizu euskara taldeak eta Ungari mendi-taldeak. Oraingoan, Elorrioko Intxorta mendira (737 metro) joango dira. Gainera, menditik jaistean, Durangon ospatu-ko den Ibilaldira joateko asmoa daukate. ◀

Noiz: Maiatzak 29, domeka.

Ordua: 09:00

Non: Fadura kiroldegiko parkinga (Algorta).

Izen-ematea: egizugetxo@gmail.com

aloi
hizki
ak

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETA

argihizkiak.com

Maiatzaren 31ra arte
bidali zure berbak!

egizul!





Bizkaiko Bertsolari Txapelketan aurrera egin duten ALBEko kideen argazkia; Arrate Illaro baino ez da falta.

Udagoieneko Fasera

Aurreko urteotako finalistak

1. Beñat Ugartetxea Ostolaza
2. Eneko Abasolo Txabarri «Abarkas»
3. Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia
4. Miren Amuriza Plaza
5. Peio Ormazabal Villanueva

Puntuazioz sailkatutako batzuk

- | | |
|--------------------------------------|--|
| 1. Imanol Uriá Albizuri.....189 | 8. Ander Elortegi Garatea 179,25 |
| 2. Nerea Ibarzabal Salegi..... 188,5 | 9. Peru Vidal Gurrutxaga178,25 |
| 3. Arrate Illaro Etxebarria.....188 | 10. Aitor Bizkarra Ruiz..... 176,75 |
| 4. Joseba Artza Zubillaga..... 183,5 | 11. Inazio Vidal Gurrutxaga 176,5 |
| 5. Malen Amenabar Larrañaga ..183 | 19. Josu Landeta Egurrola.....168 |
| 6. Gari Sarriugarte Onandia.....182 | 21. Beñat Vidal Gurrutxaga.....166 |
| 7. Mikel Goiriena Larrazabal.....180 | 25. Paule I. Loizaga Legarra..... 161 |

info+: www.bertsozale.eus / www.bertsoa.eus

Bertsoak, udagoienera

Udaberria amaitu da, BBT Bizkaiko Bertsolari Txapelketan behintzat. Udabarriko Fasean, ALBEko 7 bertsolari sailkatu dira. Jone Uriá finalurrekoetan hasiko da.

Daborduko ezagunak dira BBTren Udagoieneko Fasean abestuko duten 30 bertsolarien izenak. Zerrenda pasa den domekan osatu zuten, Algortako Fadura kiroldegian jokatutako azken kanporaketan. Bertan, Malen Amenabar larrabetzuarra nagusitu zen merezimendu osoz. Koska bat beherago geratu zen Inazio Vidal;

saioa umoretik lantzeko aukera izan zuen leioztarrak. Azken saioan Amenabarregaz eta Inazio Vidalegaz batera beste hiru bertsolari sailkatu direnez, ALBEko Peio Arondo eta Itxaso Paia leku barik lotu dira. Hala, 2000. urtetik hona, lehenengo aldiz Paya-Ruiz sendiko inor ez da izango BBTren finalurrekoetan. Aurretik, Fredi Paia gaur egungo txapeldunak argitu zuen

ez zela berriro aurkeztuko, eta Xabi Paya txapeldunak ere uko egin dio inoiz finalista izateagatik parte hartzeko zuen eskubideari; 2008an lehiatu zen azkenengoz. Bestalde, Jone Uriak baieztatu duenez, bera finalurrekoetan batuko da txapelketara, iazko finalista izateagatik.

ALBEko armadaren belaunaldi-erreleboaren irudia Paule Ixiar Loizaga da. Labetik irten berria, sopoloztarrak *sparing* lanetan ohituta egon da aurreko urteotan, eta bere lehenengo Bizkaiko Txapelketan zirrikitu bat topatu du aurrera egiteko. Beragaz

batera, Beñat, Inazio eta Peru Vidal, 2014an legez, berriro sailkatu dira Bizkaikorako, hirurak batera. Arrate Illaro ere bertan izango da, 2008tik ohi-tura duen bezala. Era berean, Imanol Uriá algortarra sailkapenaren buru pasatu da hurrengo fasera. Hala ere, Josu Landetaren maila ona azpimarratzekoa da. Getxoztar beteranoa 2004an eta 2012an ere sailkatu zen.

Bestalde, Algortan Txaber Altubek jantzi du aurtengo Bizkaiko Eskolarte-koaren txapela, buruz burukoan Unai Mendiburu garaitu ostean. ◀

info+: Hiruka.eus/uribe-kosta

ArgIHizkiak lehiaketan murgiltzeko azken deia

Maiatzaren 31ra arte badago aukera ArgIHizkiak lehiaketan parte hartzeko. Bosgarren urtez, ArgIHizkiak argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketa antolatu dute Uribe Kostan EGIZU Getxo Euskaldun! elkarteak eta HIRUKA komunikazio-taldeak, hainbat elkar-tegaz eta udalez elkarlanean. Aurtan, nobedade bi dauzka lehiaketak: batetik, adinaren arabeko maila bi izango ditu, 16-18 urte bitartekoa, eta 18 urtetik gorakoa, batez ere gazteenek euskaraz idaztea sustatzeko asmoz; bestetik, hautatutako argazkiak webgunean ikusteaz gainera, kalean ere ikus daitezke, Leioako Boulevar-

den. Lehiaketarako testuak euskarazkoak, jatorrizkoak, argitarabakoak eta aurreko edozein sariketatan aurkeztu edo saritu gabeak izango dira. Gehienez ere, testu bi bidali ahal izango ditu lehiakide bakoitzak. ◀

Betebehar batzuk

Parte-hartzea

- Maila bi daude: 16-18 urte bitartekoa; eta 18 urtetik gorakoa.
- Atal bi daude: labur-laburra, 160 karaktere gehienez; eta laburra, 100 hitz gehienez. Edozein motatako testua onartuko da.

info+ eta lanak bidaltzeko: Argihizkiak.com
685 732 963 / argi.hizkiak@gmail.com

Zinema indigena ikusteko aukera *Komunikatuz eraldaturen* azken saioan, egunean, Algortan

Eguenean, hilaren 26an, *Komunikatuz eraldatu. Herriak euren komunikazioaren jabe* izeneko jardunaldien laugarren eta azkenengo saioa egingo dute Algortako Villamonte kultur etxean, 19:30ean. Bertan, herri indigenek egindako dokumental biren emanaldia eskainiko dute: *Malla, Malla Pewenche, memoria y resistencia mapuche* eta *Soy Colla*. Ondoren, Mexikotik etorritako Mariano Estrada komunikatzaile eta zinemagile indigenak berbaldua emango du, gaztelaniaz. Estrada Tzeltal herrikoa da, eta CLACPI Herri Indigenen Zinema eta Komunikazioko Latinoamerikako Koordinakundeko kide. ◀

Leioan eta Donostian egingo ditu Hik Hasi proiektuak aurtengo Udako Topaketak

Hik Hasi hezkuntza-proiektuak Udako Topaketa Pedagogikoen 17. edizioa egingo du aurtan. Lehenengo astean, ekainaren 28tik 30era, Leioan izango dira ikastaroak, bertako Irakasle Eskolagaz batera antolatuta, iaz legez. Bigarren astea, uztailaren 4tik 6ra, ostera, Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak hartuko du. Hik Hasik zabaldu duenez, «hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta euren esperientziak trukatzeko topaleku izatea ere nahi dugu. Hausnarketa, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko dira». Izen-ematea hilaren 31n itxiko dute. ◀

info+: Hikhasi.eus/topaketak



Programatutako 125 emanaldietatik hiru bakarrik gelditu ziren bertan behera.

Umore Azokan: 38.000 ikusle

Kale-artisten Leioako topaketak Kukai, Vendaval, Philo&Jole eta Larrua taldeak saritu ditu. Balorazioa «ezin da baikorragoa izan», antolatzaileen berbetan.

Maiatzaren 19tik 22ra, kale-arten hiriburua bihurtu zuen Leioa XVII. Umore Azokak; dena, 38.000 ikusle egon ziren, iaz baino 11.000 gehiago, antolatzaileek emandako datuen arabera. «Egiten dugun balorazioa ezin da baikorragoa izan. Edizio biribila izan da, eskaintza pluralagaz era guztietako ikusleengana iritsi garela», dio Ana Lopez jaialdiko zuzendariak. Euri-mehatxua egon zen aste-akabu osoan, baina programatutako 125 emanaldietariko hiru bakarrik gelditu ziren bertan behera.

Sariei dagokionez, Kukai dantza-konpainiari eman diote aurtengo ohorezko saria. Taldeak izan duen 15 urteko ibilbide oparoa aitortu gura izan du Umore Azokak. Bestalde, epaimahaiak Vendaval taldearen *Soif/Sed* lana saritu du, Kale Ikuskizunik Onenaren Sariagaz; «teknika landu bati esker dramaturgia, konpromisoa,

arriskua, antzerkia eta dantza orekaz batu, eta publikoaren emoziorik sakenak pizten dituelako». Horrez gainera, Philo&Jole konpainiak Euskadiko Kale Ikuskizunik Onenaren Saria jaso du, *Mr. Pichichi* obragatik. Azkenik, Larrua konpainiarentzat izan da Artista/ikuskizun Berri Onenaren Saria *Larrua* lanagatik, «*breakdance*an eta dantza garaikidean oinarritutako lengoia propioa eraikitzeagatik». ◀

Saridunak

Euskadiko Kale-ikuskizun Onena
Philo&Jole taldearen *Mr. Pichichi* lana.

Kale-ikuskizun Onena
Vendabal taldearen *Soif/Sed* lana.

Ikuskizun Berri Onena
Larrua taldearen *Larrua* lana.

Ohorezko Saria
Kukai dantza-konpainia.

Martxan da Sopela Kosta Fest Film Laburren Lehiaketa

Iazko parte-hartzea eta arrakasta ikusita, aurten ere film laburren lehiaketa egingo dute Sopela Kosta Fest jaialdiaren barruan. Aurrekoan egin zuten moduan, gehienez hamar minutuko iraupena daukaten ikusentzunezko lanak aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek; natura eta surfa izango dira gaiak. Filmak aurkezteko azken eguna abuztuaren 29a izan-

go da; helbide elektronikoz (kultura@sopela.eus) bidali edo Kurtzio kultur etxera eroan ahal izango dituzte.

Irabazletzat joko dituzten lanak irailaren 22an aurkeztuko dituzte Sopela Kosta Fest jaialdian eta www.sopelakostafest.com webgunean. Hiru sari egongo dira; guztira, mila euro banatuko dituzte esku-dirutan. ◀

info+: www.sopelakostafest.com

Antzerkia protagonista izango da egunotan Erandioko eta Getxoko zenbait aretotan

Zapatu honetan, maiatzak 28, *Ratas* antzezlan eskainiko du Atakados talde amateurrak, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Emanaldia 19:00etan izango da; sarrerak 3 euroan daude salgai. Antzezlanean, hiru emakumek, hiru pertsonaia histrioniko eta zoroek, euren bizitzako egoerarik surrealisten eta eskizofrenikoena biziko dute. Lau hormen artean bizi dira, mundutik bakartuta; ez dira gai euren beldurrak gainditzeko. Haien jokabiderik ilunenak erakutsiko dituzte.

Bestalde, domekan, maiatzak 29, Eskola Antzerki Jardunaldien 34. edizioa egingo dute Andres Isasi musika-eskolan; sarrera doan izango da. Guztira, eskolaz kanpoko antzerki-tailerretan dabilten 11 ikastetxetako ikasleek parte hartuko dute horietan; euskaraz eta gaztelaniaz jardungo dute. Hori dela eta, goizean (11:30-13:30) eta arrastian (17:00-19:30) izango dira saioak. Azkenik, domekan bertan, Emakumeak eszenan zikloaren beste saio bat egongo da Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean; Totum taldeak *Holala! Mon Cheri* antzeztuko du, gaztelaniaz, 19:00etatik aurrera. Sarrerak 2 euroan egongo dira salgai. Bilboko Cortes kaleko Holala izeneko klub bat dauka oinarritzat antzeztan. ◀

Bizkaiko zinopariak, itsasoko sinesmenak erakusketak eskualdeko ekarpenak dauzka

Uztailaren 27ra arte, *Bizkaiko zinopariak, itsasoko sinesmenak* erakusketa egongo da ikusgai Bilboko Maria Diaz Haro kaleko Ondare Aretoan. Xabier Armendariz historialariak batu dituen 35 boto-eskaintza eta opari erakusten dira han. Horietako batzuk, eskualdean batutakoak dira; Gorlizko Andra Mari elizatik eta Sopelako Karmen basilikatik hartu dituzte, hain zuzen ere. Erakusketan, sei museok ere lagundu dute euren objektuak eskainiz; horien artan dago Butroeko Placentia Museoa, Plentziakoa. Erregalua dira zinopariak: itsas tradizioko eliza eta baselietako zaindarien uzten zizkieten itsasgizonek, itsasoko une arrisksuetan zaindarien egindako bitartekaritza eskertzeko. Erakusketa asteleheneetik barikura dago zabalik, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara; zapatuetan, goizez baino ez dago zabalik, 14:00etara arte. Domeketan itxita egoten da. Bestalde, bisita-gidatuak egiteko aukera dago. ◀



Adimen-garapena

GORKA
AURRE URTZAA
Irakaslea

Ikasturtea gainditzeko azken aukera

Ekaina gainean daukagu eta ikasleentzako ikasturtea garbi gainditzeko hilabete horretako azterketak azken aukera izango dira.

Ekaineko azterketak, artegasun handia, egonezin ugari eta buruko min askoren eragile dira. Ikasketetan, edukiez gain, jakintza, interesa, zaletasuna, etab. landu beharko lirateke, ikasketak bera eta jakintza oro har, izango baitira ikasleen gaitasun intelektualak, oldozmenerako tresna egokiak eta beste hainbat oinarri intelektual ezarriko dizkienak.

Ikasleak umezurtz dabilta, errenka dira euren formazio prozesu garrantzitsuan. Ez dute, hainbatetan, ikasketak erraz, eroso eta erakargarriak. Gai berriez ezagutza gehiago jaso, barneratu eta norbere jakintzaren esparru eta aberastasunerako gehigarri izan beharrean, ikasgai desberdinen azterketa gainditzeko helburuz baino ez dute ikasten.

Horretara ikasiaren ondorioetako bat, sustrai ahulak dituen zuhaitzaren antzera, ikasgaia gainditzeko helburu bakarrez ikasitakoa epe laburrean makaldu, ihartu eta ahanzturaren magalean kokatzen da.

Ikaslerik gehienak euren nahiaren eta ezinaren arteko likarraren ikusle pasibo dira. Ikaslea berandu jabetzen da ikasketak bikain ateratzeko metodologia egokiek duten garrantzia.

Ikasleek aro latzak biziko dituzte ikastaroa bukatu arte. Egoera horrek, lasaitasun uneak etor daitezenean besterik ez baldin bada ere, zerbait pentsaraztera eraman beharko lituzke, aurretik gaur egun ikasketan dituzten prozesuak aldatuz, etekin hobez, lasaitasun handigoz, denbora tarte ugariagoz eta jakintzak egokitasunez baitaratzeko metodologiak ikasiz hezkuntza prozesua erakargarri bihurtzeko urratsak ematen hasteaz dagokion oldozmena eginez. ◀

Gorka Salces Alcalde ikerlari portugaletetarrak *Euskaldunak komunikabideen aurrean: iritzien, ohituren eta jarreraren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa* izenburuko tesia aurkeztu du oraintsu EHU. Euren publiko potentzuala hobeto ezagutzen eta estrategia berriak jorratzen lagun diezaieke ikerketak euskarazko komunikabideei.

«Gertuko albisteak lehenesten dituzte euskaldunek»



KEPA UGARTE MARTIARENA

Laburbilduz, zer aztertu duzu ikerlan honetan?

Ikerketak bi zati nagusi ditu. Izenburuak berak esaten duen moduan, euskaldunek komunikabideen aurrean dituzten iritzia, ohiturak eta jarrerak biltzea zen gure asmoa. Lehenik eta behin, alde kualitatibo batetik egin dugu ikerketa: jendearekin hitz egin, eta banan-banan sakoneko elkarrizketak egin ditugu Euskal Herri osoan. Alde kuantitatiboari dagokionez, sakabanatuta zeuden euskaldunen kontsumoaren inguruko audientzia-neurketa guztiak biltzen eta sistematizatzen ibili gara.

Zer lortu gura zenuen horregaz guztiagaz?

Esan dezakegu aipatutako bi bide horietako bakoitzak bazeukala bere helburua. Nolabait esatearren, tesiak hiru helburu zehatz zituen: alde batetik, iritzi, ohitura eta jarrera horiek azaleratu nahi genituen; hau da, maila diskurtsiboago batean ikusi gura genuen euskaldunek hedabideen kontsumoari buruz zer pentsatzen duten, nola egiten duten, eta, batez ere, euskarazkoen inguruan zer-nolako erabilera eta sententzioak dituzten. Hori guztia bide kualitatibotik egin dugu. Beste alde batetik, bide kuantitatibotik lortu nahi genuen helburu bat bazegoen: datuen analisia egin gura genuen, nahiz eta gero, gehienbat, datuen bilketan gelditu garen. Ez da batere erraza izan horiek guztiak analizatzea; izan ere, datuen sistematizazio-falta ikaragarria dago. Herrialdea banatuta dago zentzu guztietan; estatistikak horren isla baino ez dira. Besatilde, hirugarren helburua

izango litzateke berrikusketa bibliografikoaren birtartez egin duguna; euskarazko komunikabideen inguruan sortu den literatura guztia Europako beste hizkuntza gutxituen inguruan sortutakoarekin alderatu nahi genuen. Ikusi gura genuen bai haientzat, bai guretzat, aberasgarria izan zitekeen zeozter ateratzeko aukera geneukan.

“**Euskalgintza osoan gertatu den ziklo boluntarista gainditu, eta profesionalizaziora jo behar dute tokiko hedabideek**”

Erraza izan da ikerketa-lana aurrera ateratzea?

Datu-bilketa edo estatistikaren bilketari dagokionez, bihotzarekin eta ahalegin handiz egindako lana izan dela esan dezakegu. Adibide bat jartzearen, Ipar Euskal Herrian jendearen etxera ere joan behar izan dut datuak bilatzera; horrek argi eta garbi adierazten du zein puntutaraino garen banatutako herri bat. Geure buruari buruz hitz egiteko ere, zailtasunak aurkitzen ditugu, alde horretatik. Elkarrizketak egiteko, adin, sexu, hizkuntza-gaitasun eta bizileku ezberdinetako euskaldunekin hitz egiten ahalegin du nintzen; nahi nuen laginak islatzea euskaldunen

baitan dagoen askotarikotasuna. Oso aberasgarria izan da Euskal Herri osotik ibili ahal izatea, gora eta behera, jendearekin hitz eginez.

Zeintzuk izan dira ateratako ondorio nagusiak?

Ondorio nagusiei buruz luze hitz egin genezake. Baina, bi nabarmenenak aipatzearen: alde batetik, esango nuke euskarazko hedabideen erabilera-maila ez duela baldintzatzen bakarrik hiztun horrek daukan inguruneak. Hau da, inguruko hiztun euskaldunen dentsitateak ez du berez azaltzen zer kontsumo-maila dagoen eskualde batean edo bestean, aintzat hartzeko moduko faktorea izan arren. Bestelako faktore batzuk kontuan hartu beharrekoak dira. Alde batetik, euskarazko hedabideen eskaintzaren osotasunari erreparatu behar zaio. Bestetik, hiztun horren identitatea, hizkuntza-gaitasuna eta gertuko harreman-sarea ere aintzat hartu beharrekoak dira. Beste ondorioetako bat da guk geuk egindako neurketak behar ditugula; euskarazko hedabide guztiak, kontsumoaren alde kualitatiboa eta interakzio digital guztiak kontuan hartuko dituzten neurketak, alegia.

Euskaldunen hizkuntza-gaitasunak eragina dauka.

Hizkuntza-gaitasunak daukan eragina oso nabarmena da. Alde batetik, ulergarritasunarekiko pertzepzioa eta euskarazko hedabideekiko iritzia aldatzen dira. Euskarriak ere badauka bere eragina horretan; euskarri batean edo bestean hedabide horrek zabalitzen duen edukiak ere garrantzia dauka. Baina, hori



ere oso lotuta dago hizkuntza-gaitasunarekin. Adibideetara joz, *Berría* egunkariak oso hizkera zaila erabiltzen duela esateko ohitura euskara gutxiago erabiltzen eta hizkuntza-gaitasuna mugatuago dutenen artean antzeman dugu. Irratiarekin eta telebistarekin, berriz, argi ikusten da hizkuntza-gaitasuna txikia izanda ere, euskarri horietan erabiltzen den euskara errazago dela esaten duela hainbatek.

Erdarazko komunikabideek eragina daukate euskaldunek zein hedabide kontsumitu erabakitzeke?

Bai. Hori da beste ondorioetako bat. Datuak bildu eta ahal izan dugun punturaino sistematizatu ditugun arren, argi eta garbi baieztatu daiteke erdarazko komunikabideek menperatzen dutela Hego Euskal Herriko panorama mediatikoa; kontsumoaren zatirik handiena eurei dagokie, baita euskaldunen artekoa ere. Askotan kontuan hartu behar dugu euskaldun diogunean erdaldua badela komunitate bateko kide, euskaldunok errealtate horretan «subsumituta» gaude; mundu biak dauzkagu inguruan. Erdarazko komunikabideek eragin oso handia daukate euskaldunek zein hedabide kontsumitu erabakitzeke orduan.

Zer egin beharko litzateke oreka bermatzeko?

Hasteko, ondo legoke ikustea benetan zein den euskaldunen soslai eta ulertzea euskara lehen hizkuntza duten hiztunek proportzio gero eta txikiagoa hartzen dutela komunitatearen baitan. Horretara

egokitzea funtsezkoa da. Baina, bestetik, ezin da ezkutatu erakundeek daukaten erantzukizuna. Esaterako, aurreko batean Gipuzkoako Foru Aldundiak erdira jaitsi zuen euskarazko komunikabideetan jarriko zuen publizitate instituzionalaren kopurua. Hizkuntza Politika Sailburuordetzarekin ere ika-mika ugari egon da azkenaldian diru publikoa bana-

“ Ezin da alboratu erakundeek daukaten erantzukizuna. Tokiko hedabideek aurrera egiteko, dirua guztiz beharrezkoa da ”

tzeko irizpideen inguruan. Ondo pentsatu beharko lukete tresna horiek hizkuntza berdintasuna bermatzeko erabiliko diren, edo, besterik gabe, beste helburu batzuetarako erabiliko dituzten.

Gaur egun, zer etorkizun ikusten diezu euskarazko hedabideei?

Perspektiba apur bat eduki beharra dago. Duela 30 urteko errealtatea eta gaur egungoa alderatuz gero, komunikabideetan askoz gehiago egin da aurrera, kalean baino; euskarazko komunikabideek garabide nabarmenagoak eduki dituzte, hizkuntzak

berak baino. Zentzu horretan, euskarazko komunikabideen etorkizuna positibotzat jotzen dut. Ikusi behar da aktoreen tamaina zelakoa den, eta zeintzuk diren bete gabeko hutsuneak; izan ere, tokiko prentsari dagokionez, badaude oraindik geografiko ki estali gabeko eremu zabalak. Baina, oro har, nik esango nuke hobera doala egoera. Aldi berean, nabarmendu beharrezkoa da hori horrela dela kazetari askoren lan militantea hori egon delako. Behar beste ordaindu gabeko lanarekin aurrera ateratako proiektuak izan dira; hori guztia gainditzeko beharra dago. Euskalgintza osoan eman den ziklo boluntarista hori gaintitu, eta profesionalizaziora jo behar dugu; gomendagarria izateaz gainera, seinalerik onena litzateke hori. Horretarako, dirua beharko litzateke; erakundeek bere erantzukizuna daukate.

Tokiko hedabideei dagokionez, zer iritzi daukate elkarrizketatutako lagunek?

Gauza deigarrienetako bat iruditu zait elkarrizketatuek tokiko albisteak lehenesten dituztela; eurentzat gertutasuna da gehien balioesten duten ezaugarrietako bat komunikabide batean. Egunerokotasunean eragiten duten albisteak nahi dituzte; haiek albiste horietan eragin dezaketela ere sentitu nahi dute. Beraz, hori bada kontuan hartzeko iritzia tokikoentzat. Hala ere, eskakizun-maila baxuagoa dago tokiko hedabideekin; erabiltzaileak kontziente dira baliabide gutxiago daukatela komunikabide horiek. Uste dute ez dela onargarria baliabideak gaintzen dituen lan bat eskatzea.

Euskarazkoei buruz ari garenean, tokiko prentsak hizkera errazagoa eskaintzen duela sentitzen dute elkarrizketatuek. Askotan, lotuta agertu da albisteen gaiarekin; hau da, nazio-mailako prentsan jorratzen diren gaiak eta tokikoetan agertzen direnak ezberdinak dira, eta horregatik ulergarriagoak egiten zaizkie. Euskarazko prentsa dagoen toki horietan erreferentzialtasuna lortzeko errazagoa daukate tokiko hedabideek, nazio-mailako prentsak baino. Gero, hori guztia, ekonomikoki islatzen den ala ez, gai ezberdina da.

Lerratze politikoari dagokionez, neutraltasuna aipatzen da askotan.

Neutraltasunaren ideia ez da neutrala, noski. Pertzepzio horretan asko eragiten du presentzia publikoak; egunkari berak lortzen badu tabernen %95ean egotea, horrek normaltasunaren ideian eragiten du. Euskarazkoei buruz ari bagara, pertzepzioa da horiek abertzaleak direla. Gainera, askotan nahasmenak eragiten ditu horrek; besterik gabe abertzaleak direnak euskarazkotzat ere jotzen dira. Hizkuntza menpeko elementu gisa geratzen da kasu horietan; askotan, erdarazko hedabide abertzaleei buruz erantzuten digute, euskarazkoei buruz galdetzen dieguenean.

Eta bereziki tokiko komunikabideen etorkizunaz zer uste duzu?

Aurrerapauso nabarmenak egin dituzte azken aldian horiek guztiek, arnas-gune tradizionalatik kanpo. Dinamika hori elikatzea positiboa litzatekeela uste dut, milaka eta milaka euskaldun dagoelako erdal-dunagoak diren eskualde horietan. Positiboa izan nahi dut; pentsatu nahi dut aurrerapausoak emateko esparru gehien tokiko proiektuetan dagoela. Ikusiko ditugu aurrerapauso horiek... ◀



Campusaren zazpigarren edizioa izango da aurtengoa. © BIZKAIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

Udan, saskibaloia

Leioako Irlandesas ikastetxean egingo da Bizkaia Basket Fundazioaren saskibaloi-campusa, datorren udan. Izen-emateak maiatzaren 30era arte egin daitezke.

Bizkaia Basket Fundazioak udako saskibaloi-campusa antolatuko du ekainaren 22tik 24ra eta 27tik 30era, Leioako Irlandesas ikastetxean. Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren babesarekin badaukate saskibaloi-ikastarook. Campusaren helburu nagusia da «bertaratuko direnak trebatzea eta euren maila hobetzea, ariketa teknifikaziorantz bide-

ratzen, 2015-16 denboraldian egindako ahaleginari jarraipena emateko». Hala ere, dena ez da entrenamendua izango. Gaztetxoei jakinarazi dietenez, «aste honetan, saskibaloiak gozatze-ko eta aisialdiagaz bateratzeko aukera izango duzue, inguru disfrutagarri batean». Hala, campusak hainbat kirol-jarduera aurreikusitakoak ditu, tartean hipika eta tirolina. Antolatzaileek agindu-

dute «saskibaloiaren mito bat» izango dela bertan, entrenamendua egiteko, neska-mutilak argazkia ateratzeko, eta gura duten umei autografoa emateko. Campus mistoa izango da, eta 7 eta 14 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute. Horren prezioa 280 eurokoa izango da, baina Kutxabankeko Gaztedi plana duten gaztetxoek 20 euroko deskontua dute. Izen-emateak maiatzaren 30era arte egin daitezke; alabaina, leku-kopurua mugatu denez, fundazioak inskripzioak ahalik eta lasterren egiteko eskatu du. Parte-hartzaileek campu-

seko kirol-arropa eta saskibaloi-baloia jasoko dituzte. Gainera, bazkaria, askaria, autobus-garraioak, diploma eta aseguruak prezioaren barruan daude. Izen-ematea federazioaren webgunean egin daiteke.

Beste behin ere, campuseko zuzendaria Joxean Figuroa izango da. Figuroa ACBn entrenatzaile profesional ohia eta Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren Entrenatzaileen Eskolako irakaslea da. Campusean berak ipiniko ditu kirol-jarraibideak. ◀

info+: campus@bizkaibasket.com
izen-ematea: Bizkaibasket.com

Rafa Iglesias campusak izen-ematea zabaldu du

Astrabuduako Futbol Taldeko koordinatzailea zenaren omenenez, San Lorentzo futbol-zelaiak hartuko du Rafael Iglesias campusaren bigarren edizioa, datozen ekainean eta uztailean. Klubak adierazi duenez, 2002tik 2010era bitartean jaiotako neska-mutilek izango dute parte hartze-ko aukera. Horretarako, aurretik izena eman beharko dute; ekainaren 27a da epemuga. Argibide gehiagorako eta inskripzioa betetzeko, klubaren idazkaritzara jo daiteke. Era berean, klubak webgunea, posta elektronikoa eta telefono-zenbaki bat ipini ditu gurasoen zalantzak argitzeko. Campusak hiru



© ASTRABUDUAKO F. T.

txanda izango ditu: ekainaren 27tik uztailearen 1era, uztailearen 4tik 8ra, eta, azkenik, uztailearen 11tik 15era. Ordutegia, ostera, berbera izango da denetan: 09:00etatik 14:00etara. ◀

info+: astrabuduako@gmail.com / 615 729 080

Gorlizen ere egingo da udako kirol-campusa

Gorliz Kirol Elkartek futbolekin eta beste hainbat kiroletan «euskaraz gozatze-ko aukera» emango die uda honetan 6 eta 14 urte bitarteko umei. Klubak jakinarazi duenez, hipika, abentura-txangoak, futbola, piraguismo eta eskaladan murgildu ahal izango dira bertaratuko diren umeak. Campusak txanda bi izango ditu: uztailearen 4tik 8ra, eta hil bereko 11tik 15era. Gaztetxoek Gorlizko futbol-zelaian izango dute hitzordua, goizeko 09:00etatik 14:00etara. Aurretik izena eman eta ordaindu beharko dute; astebete, 85 euro izango dira, eta biak, 160 euro. ◀

info+: gorlizkokanpusa@gmail.com / 667 714 055

Urduliz Futbol Taldea jokalaria hartzen dabil

Daborduko, hurrengo denboraldia prestatzeari ekin dio Urdulizko Futbol Taldeak. Klubak ateak zabaldu dizkie balizko jokalariei, eta 1998tik 2010era bitartean jaiotako umeak zein gazteak deitu ditu, Iparralde futbol-zelaira joan eta entrenatzen has daitezten. Datozen deialdiak honakoak dira: 2007an eta 2008an jaiotakoak egunean, maiatzak 26, zelairatuko dira; eta ekainaren 2an, 2004 eta 2006 bitartean jaiotako txanda izango da. Ordutegiak eta zalantzak argitzeko, Iker Casado koordinatzaileagaz berba egin daiteke. ◀

info+: 647 108 484 (Iker Casado)



Pasa den urtera arte, Peña Txuri Gazte Pro Sopela jokatzeko Arriateran. © LAURENT MASUREL - WSL

Gazteen munduko surf-lehiaketa, Atxabiribilen

Munduko Surf Ligak (WSL) iragarri du Sopelan egingo duela 18 urte azpiko nazioarteko surflaririk onenen arteko lehiaketaren proba bat. Hala, nazioarteko Gazte Sailkatze Serieak (JQS) lehiaketa berria Arriatera-Atxabiribil hondartzara helduko da datorren uztailan, hila-

ren 14tik 17ra. WSLk mundu mailan ezagutarazi duenez, Sopela da «bira-aren etaparik ospetsuena», duen «tradizio luzea» dela-eta. Proba «Euskal Herrian» jartzeagaz batera, «olatu indartsuak», hondartzaren «jatorrizko harea zuria», eta «esperientzia ahaztezina» nabarmendu dituzte. ◀

Eta Abrako Gizarte Saria irabazi dute...

Daborduko amaitu da Abrako Gizarte Sariaren hirugarren edizioa. Bela-lehiaketak hirugarren eta azken estropada egin zuen pasa den aste-akabuan, ipar-mendebaleko haize-ufada gogorren artean. Proba erabakigarriaren ostean, A-B kategorian Javier Chavarriren *Tana*

belaontzia nagusitu zen; C modalitatean, balentria bera lortu zuen Koldo Baezek, *Marmotinha* ontzia gidatuz. Bestalde, J 80 mailako ontzien artean, Gonzalo Chavarriren *Fin Gol Fin*-ek irabazi zuen saria, kategoria horretan jokatuako estropada bakarrean arinena izateagatik. ◀

Algortako triatloian izen-ematea, zabalik

Datorren ekainaren 4an, zapatua, egingo dute Algortako Lagunarteko Triatloi Oso Herrikoien laugarren edizioa. Algortako Gazteak kolektiboak antolatuta, proba Erea-ga hondartzatik irtengo da, Ola jatearen albotik, 16:15ean. 250 metro igeri egin ostean, bizikletaz 14 kilo-

metro bete beharko dituzte parte-hartzaileek. Ondoren, 1.300 metro korrika egin beharko dituzte, San Nikolas plazara heltzeraino. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, atleta-kopuru mugatua onartuko dute, 50 pertsonentzako lekua baino ez dago-eta. ◀

izen-ematea: ag.kirolabentura@gmail.com

Repsol Neotech erregai berriak


Baliatu gure **Teknologia Zentroko** azken aurrerapenak. Orain, **gure erregai guztiak** Neotech dute, eta horren formula esklusiboak honako abantaila hauek emango dizkizu gehiago ordaindu gabe:

- PRESTAZIO HANDIENAK KONTSUMO TXIKIENAREKIN
- MOTORRAREN BABES HANDIAGO
- MATXURA GUTXIAGO



REPSOL

Inventemos el futuro



**REPSOL, CAMPSA ETA PETRONOR
HORNITEGIETAN SOILIK**

Informazio gehiago repsol.com webgunean



Aldagelatik

ANA
MASA PEREIRO
Kirolzale amorratua

Gaurko eskola, biharko kirolariak

Pasa den larunbatean errugbiko Bilbo Hiria txapelketa egin zen Bilbon. 1.000 ume baino gehiago zelairatu zen El Fangoko errugbi instalazioetan, maila eta adin desberdinetako partidak jokatzeko. Egun osoan aritu ziren etorritakoak errugbian jokatzeko eta ikusteko, baita errugbiaz gozatzen ere, noski. Izugarritzko jardunaldia izan zen larunbatean Bilbon bizi izandakoa, eta izugarria da, neurri berean, klub desberdinetako errugbi eskoletan egiten ari den lana. Getxon, esate baterako, ia 200 jokalaria daude 16 urte azpitik, eta urtero hazten da kopuru hori. Lehenengo taldeetako jokalariek batzuk dira errugbizale gazte horien arduradunak, eta bi astero antolatzen dira topaketak beste klub batzuekin. Errugbi estandarren arauak pixka bat aldatzen dira joko errazteko, eta errugbiaz gozatzea da partiduen helburu bakarra.

Garrantzi handiko proiektua da kirol-eskolakoa. Txiki-txikitik hasten dira umeak kirolean eta hazi ahala ikasten dituzte joko-arauak eta baloreak. Eskolan hasi diren jokalariek goi-mailako taldeetara ailegatzen direnean berehala nabari zaie trebetasuna zelaian. Baina teknikoki ez ezik, izaeran ere igartzen da eskolan hasi zirela jokatzeko. Kirolean zein bizitzan ezinbestekoak diren baloreak gaztetxoak direnean bereganatzen dituzte eta behin betikoak dira. Errespetua, zintotasuna, talde-lana eta joko garbia izugarritzko balore positiboak dira; kirol-eskoletan ikasten dira modu didaktiko eta aktiboan horiek guztiak.

Eskola proiektuak lantzen bada, urte batzuk barru itzelezko jokalariek edukiko ditugu gure taldeetan. Bai errugbian, bai beste kirolean, garrantzitsua da Bilbo Hiria Txapelketa moduko inizatibak burutzeko, etorkizunerako jokalariek hobekia lortuko badira. ◀



Boluekoek otsailean ligaren garaipena ospatu zuten. © BIZKERRE

«Erre ke erre...»

Bizkerre klubeko taldeek emaitza biribilak lortu dituzte aurtun; kadeteek Liga eta Kopa irabazi dituzte.

Bizkerre klubaren emakumezko kadeteek Bizkaiko Kopako titulua eskuratu zuten pasa den maiatzaren 14an Barakaldoko Ibarreta futbol-zelaian.

Algortarrak gupida barik nagusitu zitzaizkien Pauldarrak taldeko jokalariek, 6-2 irabazita. Uxue Garciak hiru gol sartu zituen, Sara Garaitagoitiak, Nerea Nevadok eta Elena Martinezek, berriz, tanto bana egin zuten. Partida lehiatsua izan zen lehenengo zatian, baina atsedenaldiraren ostean, Boluekoek joko indartu, eta erabateko nagusitasuna ezarri zuten zelaian. Hala, Uxue Garcia golegile nagusi eta taldeko kapitainak jaso zuten kopa Jo-

seba Gamboa Bizkaiko federazioaren presidentearen eskuetatik. Ostean, talde algortarrak garaipena ederto ospatu zuten.

Ostera, Kopakoa ez da kadeteek denboraldi honetan lortu duten garai bakarra: Bizkaiko liga ere irabazi zuten, pasa den otsailean. Gotzon Legarretaren taldeak 18tik 14 partida irabazi zituen, eta bitan bakarrik galdu zuen. Orduan ere, Pauldarrak taldea izan zuten arerio nagusia.

Horrez gainera, haurren B taldearen «bizkeneskak» txapeldunorde es-treinatuta dira aurtun 9ko futboleko ligan. Finalean, 3-1 galdu egin zuten Mendi Hotza taldearen aurka. ◀

De la Puerta eta Aristeguiaren arteko lehiarik ez

Mercedes Aristegui tenislari getxoztarrak Euskadiko Tennis Txapelketa irabazi zuen, pasa den maiatzaren 15ean, jokatu barik. Kadete-kategoriako finalean, Aristegui Lucia de la Puerta getxoztarraren aurka neurtu behar zuen bere burua, baina Jolasetakoen arteko derbia ez zen egin, De la Puerta lesionatuta baitzegoen. Aurreko astean, De la Puerta Mutua Madrileko sariketa irekia irabazteko atarian geratu zen, 16 urte azpiko modalitatean. Gazteak Lucia Cortez valentziarraren aurka galdu zuen finala, 6-4 eta 7-6. Sari hartan, Aristegui final laurdenetan geratu zen. ◀

Virginia Diaz Riorako txartel barik lotu da

Virginia Diaz Raspas arraun-elkarteko arraunlaria ez da egongo datozen Olinpiar Jokoetan, Rio de Janeiro. Getxoztarra Suitzako Luzerna hirian izan da pasa den aste-akabuan, bertako txapelketa azkenengo aukera baitzuen abuztuan Riora joateko. Diaz ahalegindu da banakako skiff-modalitatean parte hartzeko izan diren hiru lekuetako bat lortzen, baina finalurrekoan bosgarren izanda, ez du eduki horretarako aukerarik. Halere, Diazek eskertu egin du klubak eta Getxoko Udalak emandako laguntza, Luzernan ahalik eta aukera gehien izateko ontzi berria erosi baitzuen haiei esker. ◀

Algortako Goikoa zaleen taldearen inaugurazioa

Datorren barikuan, hilak 27, Athleticen Goikoa Ander Herrera zaleen taldeak bere egoitza inauguratuko du ofizialki. Ekitaldia Algortako Alango kaleko Goikoa tabernan egingo dute 19:00etatik aurrera. Bertan, Athleticen eta beste zale-taldeetako hainbat ordezkari izango dira. Ekitaldia Itzurbaltzeta/Romoko Zasi-Eskola dantza-taldearen emanaldiak abiatuko du. Ondoren, taldeek opariak egingo dizkiote elkarri. Azkenik, luncha eskainiko dute. Algortako zale-taldea 2011ko urrian sortu zuten, Ander Herrera bertan izan zela. Gaur egun, 35 bazkide daude, eta Athletic ikusteko irteerak egiten dituzte. ◀

Athleticek babesagertu dio Ager Aketxe jokalaritari

Athleticek klubaren babesagertu dio Ager Aketxe Bilbao Athletic taldeko erdilari itzurbaltzetarrari. Pasa den astean, publiko egin zen Getxoko 5. Instrukzio Epaitegiak jokalaria ikertuko duela, ustezko agintaritzaren aurkako atentatu-delitu bat argitzeko. Izan ere, ertzain batek iaz salatu zituen Aketxe eta beste gazte bi, abuztuaren 9an, Itzurbaltzeta/Romoko jaietan, bera kolpatu eta Gobela ibaira bota zutela egotziz. Athleticek gaia segitu du poliziak salaketa ipini zutenetik, eta ordutik defendatu du itzurbaltzetarra. Auzia epaiketara joan daiteke, ala bertan behera geratu. ◀

Artaromok irabazi du areto-futbolaren Kopa

Itzurbaltzeta/Romoko Artaromo areto-futbol klubak kadete-mailako Kopa irabazi zuen pasa den maiatzaren 15ean. Azken partida Menesianos B talde bilbotarraren aurka jokatu zuten. Lehia berdinduta egonda, etxean jokatzeko ondo etorri zitzaizkien Gobela-koei, 3-1 markagailuan nagusitu baitziren. Klubak azpimarratu du mutilek ez zutela denboraldia ondo hasi baina «lan eskerga» eginez gora egin dutela. Era berean, gurasoen eta zale denen babesagertu du, une txarretan ere hor egoteagatik. Kluba jokalariek berri bila dabil datorren denboraldirako. ◀

info+: artaromo@hotmail.com / 677 788 625

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

		5			6	3		
		9		5				
			3		4		9	
	9			3	8	6		5
						7	2	
	1		5	2				3
6				8			3	4
8			6					
	5	3					7	

2		9			7			
			6			1	8	
							4	9
	7					6		
			7		4			8
6		1	2					
	1							
		8		5	3			
	9	6				5		

4	3	2						
	7				3			6
		6		7	4	5		
	2							8
8					7	2		9
			8		6			3
3		1						
5	6		9					7
				1				

Soluzioak

4	5	9	8	1	3	7	9	2
8	7	6	5	9	2	8	1	4
3	4	1	7	6	5	9	2	8
7	5	9	8	2	6	1	4	3
6	9	2	7	8	5	3	4	1
9	8	6	1	7	4	5	3	2
1	7	5	2	8	3	4	9	6
4	3	2	6	5	9	8	7	1

4	5	9	8	1	3	7	9	2
8	7	6	5	9	2	8	1	4
3	4	1	7	6	5	9	2	8
7	5	9	8	2	6	1	4	3
6	9	2	7	8	5	3	4	1
9	8	6	1	7	4	5	3	2
1	7	5	2	8	3	4	9	6
4	3	2	6	5	9	8	7	1

4	5	9	8	1	3	7	9	2
8	7	6	5	9	2	8	1	4
3	4	1	7	6	5	9	2	8
7	5	9	8	2	6	1	4	3
6	9	2	7	8	5	3	4	1
9	8	6	1	7	4	5	3	2
1	7	5	2	8	3	4	9	6
4	3	2	6	5	9	8	7	1

Zorion agurrak

5€

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus

94 491 13 37



ITXASO
BARRIKA - GETXO
Kuadreren partez

Zorionaaak, Ateka!! Jadanik hogeita guztien eguna heldu zaizu, ondo etorri amama-klubera! Asteburuan ospatuko dugu elkarrekin. Muxu handi bat!



ARAI
BERANGO
Zure eskolako lagunon partez

Zorionak, Arai! Zuretzat egun zoragarria eskatu dugu, zure ohiko erritmoan eta berezi egiten zaituen irrifarreagaz bizitzaz disfrutatzen jarrai dezazun 6 urterekin! Muxuak!



JAYO ETA ANDER
ALGORTA
Senide eta lagunon partez

Horrenbeste prestaketa-lanen ostean, heldu da eguna! Zorionak! Alde batera utzi urduritasuna eta goza ezazue ezkontza-ekitaldian, oturuntzan, gauean... Topa egin dezagun!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Kontuak ez badira behar bezala atera, ez zaitez larritu. Horrelakoetan, zure kabuz arazoak konpontzen ikasi behar duzu.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Bizitzan zuzena eta zeure arduren erantzule izatea ez duzu mugatu behar lan edo ikasketa eremuetera. Bizitza askoz gehiago ere bada.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Ezin duzu bizitza osoa iraganetik bizi, beti txarto egindakoak gogoratu. Kontuak ezin dira aldatu, baina zeure jarrera bai.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Oso baikor eta energia handiagaz zabilta azken boladan. Baliatu zure egoera, inguruan duzun pertsona bat laguntzeko; berak behar du-eta.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Gaizki ulertuengatik, eztabaida bat baino gehiago izango duzu; ez direlako behar bezala ulertzen zuk gauzak zelan adierazten dituzun, batez ere.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Idea berritzaile asko izango duzu, baina buruan dituzun proiektu horiek denak betetzeko: egin egin beharko dituzu, burutu.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Ez ahaztu maite dituzun pertsonak; harremanak, egunero zaindu beharko zenituzke. Agian, opariren bat edo sorpresaren bat egiteko unea da.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Etetik urrun egon gura duzu, askatasun egarriz biltzalako. Ondo etorriko zaizu bidaiatxo bat egitea, baina sendiagaz harremana eten barik.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Espero ez zenituen gertaerak ate joka dituzu. Dena alde zurretik kontrolatuta izatea gogoko duzu, eta bat-batekoak nahastuta utziko zaitu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Zure bizitzako une eta egoera onenean ez zaudela nabarmena da. Zuk dena beltz ikusten segitzen du-zunez, zure ondokoak fidatu.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Zuk baino eskarmentu gutxiago dutenei ematen dizkiezun aholkuak oso baliagarriak dira. Batzuek, baina, gurago dute euren kabuz tronpatzea.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Bizitzak hamaika buelta eman dizu: adiskide berriak, bikotekidea aldatu, lanbidea ere bai... Aldaketa denak, lasai aztertu beharko zenituzke.



Plentziako *Titanica*

Urperatu ezina, Brasilen hondoratuta

Principe de Asturias lurrenontziaren gaineko erakusketa ipini du Plentziako Plasentia Butron museoak. Garaiko bapore handienetakoa izan zen, Brasilgo kostaldean hondoratu zen arte; hona hemen bere historia.

IKER RINCON MORENO

Ehun urte bete dira aurtan, *Principe de Asturias* lurrenontzia Brasilgo kostaldean hondoratu zenetik. Garai hartan, 1916an, Espainiako merkataritza-ontzidiaren transatlantikorik handiena zen *Principe de Asturias*, *Infanta Isabel* ontzi-bikiagaz batera. Pinillos ontzi-entresakoak, biak. 1914ko apirilaren 30ean itsasoratu zuten *Principe de Asturias*, Cadizeko matrikulagaz. Luxu handiko itsasontzia zen; garaiko segurtasun-neurri berrienak zituen, eta lehenengo klaseko 150 bidaiari, bigarren klaseko 120, bigarren ekonomikoko beste 120, eta hirugarren klaseko 1.500 pertsona hartzeko lekua zeukan. Hura gobernatzeko, 193 tripulatzailer beharrezkoak zituen, gainera; horietatik, ehuneko handi bat bizkaitarrek osatzen zuten, Gorniz eta Plentzia ingurukoek, batez ere. Hala, *Principe de Asturias* lurrenontziaren agintean, Jose Lotina Abrisqueta plentziarra ibili zen: Pinillos ontzi-entresako 44 urteko eskarmentu handiko kapitaina. Zubiko lehenengo eta bigarren ofizialak Alejo Gardoqui (lurrenontziaren azkenengo bidaiari deskantsurako baimena zuen) eta Rufino Onzain plentziarrak ziren, hurrenez hurren; makinetako nagusia, berriz, Dionisio Oñate Torrontegi gorniztarra.

Lurrenontziak abuztuaren 16an ekin zion lehenengo aldiz Ozeano Atlantikoa zeharkatzeari. *Principe de Asturias*ek Espainia eta Hego Amerika arteko zehar-

kaldiak egiten zituen, eta Buenos Aires, Montevideo eta Rio de Janeiron gelditzen zen, besteak beste. Hala, Transatlantica konpainiagaz batera, Pinillos ontzi-entresaren bi lurrenontzi bikiek «berreskuratu» zuten Espainiar Estatuaren eta Hego Amerikaren arteko itsas bidaien eta garraioaren hegemonia.


***Principe de Asturias* lurrenontziaren tripulazioaren zati handi bat bizkaitarra zen, Gorniz eta Plentziakoa, batez ere.**

Pinillosen bandera-ontzia 1916ko otsailaren 17an abiatu zen azkenengoz Bartzelonako portutik Buenos Airesera. Bide hori egiten zuten garaiko marinelek beldurra zioten San Sebastian uharterko Punta do Boiko (Brasil) itsasargiari, Europatik hurbiltzen ziren ontziek arazo ugari zituztelako hura ikusteko, Pirabura lurmuturreko arrokek itsasargia estaltzen zutelako. Itsasargiak ahalmen txikia zuen, gainera; lainoa zenean, ia ezinezkoa zen haren argia ikustea.

Martxoaren 3az geroztik, ontzia balioespen hutsaz nabigatzen zebilen, aurreko eguneko eguraldi txarrak ezinezkoa egiten baitzuen ontziaren nora-

bidea zuzentzea. Martxoaren 5eko goizalderako, lurrenontzia Brasilgo kostaldean zegoen; aurretik gau lainotsua eta euritsua izan zuten, eta itsasoak zatar jotzen zuen, hego-mendebaldeko haize gogorragaz. Eguraldi txarraren eta ur-korrante gogorren ondorioz, ontzia aurreikusitako bidetik kanpo zegoen, kostaldetik milia gutxira. Halako batean, marinelek argi-distira bat ikusi zuten brankan, eta bigarren distira ikustean, errealitate gordinaz konturatu ziren: itsasargia aurrez aurre zuten, milia batera baino gutxiagora. Ontziak 10 korapiloko abiadura zeroan; Piraburako uharrien kontra zihoan zuzen-zuzen.

Lotina kapitainak aginte-telegrafoa hartu, «atzera guztia!» agindu zuen, eta ontzizainari, berriz, «dena ababorrera!» egin zion oihuka. Halere, alferrik: goizeko 04:15ean *Principe de Asturias* ontziak uharrien kontra jo zuen, Punta do Boitik milia eta erdira. Harri zorrotz batek arraildu zuen transatlantikoaren behealdea. Kontua horrela, ate hermetikoak ixtea, salbamendu-ontziak itsasoratzea eta SOS mezuak bidaltzea agindu zuen kapitain plentziarrak. Talka oso bortitza izan zen. Ontziaren hondoa brankatik poparaino arraildu zuen; segundo gutxira, branka ur-azpira, eta popak gora egin zuen; helizeak, uretatik kanpo biraka. Ura ontzian sartzen hasi zen; galdara-aretora bortitz sartu, lurren-galderak leheritu, eta itsasontzia energia elektriko barik utzi zuen. Ondorioz, ezin zuten larrialdi-mezurik igorri irratiz. Eztandek, gainera, bigarren eta hirugarren klaseko geletan suteak eragin zituzten; *Principe de Asturias* ontziaren barrualdea labirinto kaotikoa zen ordu-rako. Hondoratzeko 5 eta 10 minutu artean baino ez zituen behar izan lurrenontziak. Tarte horretan salbamendu-ontzi bakarra itsasoratu ahal izan zuten



Ezkerraldean:
Pinillos ontzidi-enpresaren
Principe de Asturias lurruntzia
iragartzeko postala.

Eskumaldean:
transatlantikoaren ontzi-gaina;
tripulazioaren ofizialen
talde-argazkia;
Jose Lotina kapitaina
eta erretzaileen gela.

© LOTINA FAMILIA

tripulatuak. Horrenbestez, Brasilgo itsasoak luxuzko ontzian harrapatuta irentsi zituen bidaiari gehienak. Ez dago ziurtatzerik zenbat jende zegoen *Principe de Asturias* ontziaren azkenengo bidaiari. Hala ere, datuen arabera, bidaiari eta tripulatuak kopurua 588koa zen (193 marinel eta 395 bidaiari). Horietatik, 143 bakarrik salbatu ziren: 86 marinel eta 57 bidaiari; guztira, 445 hildako.

Dionisio Oñate marinel gorliztarra itsasoan hil zen, familia-lagun bati laguntzen ahalegintzean. Rufino Onzain zubiko bigarren ofizialak, berriz, itsasoratutako salbamendu-ontzi bakarraren agintea hartu, eta 100 bidaiari baino gehiago salbatzea lortu zuen. Jose Lotina kapitain plentziarra, azkenik, zubiaren gelditu zen; ezinezkoa egiten ahalegindu zen, harik eta olatu batek beragaz eroan zuen arte.

Ustea zen *Principe de Asturias* ez zuela izango hondoratze arriskurik, *Titanic* transatlantiko britainiarraren antzera, konpartimendu hermetikoak eta hondo bikoitza zituelako. Alabaina, ontzi ingelesak 1912an egin zuen bezala, Bartzelonatik irtenekoak garaiko pertsona dirudun eta famatu ugari itsasoaren hondora eraman zituen, baita bizitza hobe baten bila eta 1. Mundu Gerratik ihesi zihozten ehunaka immigrante ere.

Tripulazioa, bidaiariak eta karga

Hainbat ikerlarik diotenez, itsasontzian ezkutuko 100 bidaiari zihozten; beste batzuen esanetan, ordea, gerratik ihes egin gura zuten 1.000 ume zihoztela, italiarrak batez ere. Hala eta guztiz ere, datu horiek ezin dira egiaztatu, Transatlantica eta Pinillos konpainiek inoiz ez dute eta onartu gura izan bidaiari klandestinoak zeroatzatenik. Alabaina, Bartzel-

onatik irten zenez, arrazoizkoa denez, *Principe de Asturias* ontziaren azkenengo bidaiari katalan ugari zeuden. Oostera, bitxia izan daiteke bidaiarien %30 euskaldunak izatea. Horien artean, luxuzko klasean, Agirre familia dirudun donostiarra zihozten; Montevideon bizi ziren; klase horretan, halaber, honako abizenak aurki zitezkeen zerrendan: Jauregi, Urtiaga, Egiguren, Ordogi, eta abar. Lehenengo, bigarren eta bigarren klaseetan ere, Hernandez Larriaga familia eibartarra, eta Lara Basañez familia eta Homero Inchaustieta algortarrak zihozten, Txilera heldu guran. Garai haietan, ohikoa ei zen transatlantiko handien bidaiarien artean euskaldun ugari egotea, Hego Amerikarako bidaietan, batez ere. Izan ere, diotenez,

Garaiko segurtasun neurri modernoak izan arren, uharrien kontra jo, eta 5 eta 10 minutu artean guztiz hondoratu zen.

XX. mendearen hasieran, euskaldunek zuten ahalmen ekonomikorik handiena, madrildarrakaz eta katalanakaz batera.

Horrez gainera, aipatu den legez, ontzia gobernatzen zutenen ehuneko handi bat bizkaitarra zen, eta horietako asko Gorliz eta Plentzia ingurukoak, batez ere. Hainbat ikerlarik dioenez, baliteke ontzidi-enpresa handiek itsasontzi garrantzitsuen agintea euskaldunei eman izana, Euskal Herriko dirudunak itsasontzietara erakartzeko.

Bestalde, bidaiariak eroatez gainera, zama garraiatzeko aproposa zen lurruntzia. Hala, besteak

beste, eztainu, berun, burdin eta kobrezko lingoteak zeroatzan baporeak. Halaber, azkenengo bidaiari, 800 kilogramo baino gehiagoko 20 estatua zeramatzan: Buenos Aireseko independentziaren ehungarren urteurrena ospatzeko erabili asmo zituzten estatuok. Horrez gainera, dokumentaziorik egon ez arren, esaten zen itsasontziak urre-kantitate handia eroan zuela, gariaren inportazioagatik gobernu argentinarrari emateko edo ordaintzeko. Gainera, zamazainaren kutxa gotorrean, lehenengo klaseko gizon-emakumeen bitxiak gordetzen zituzten, hamaka milioi pezetako balioa zutenak, diotenez. Hala bada, zama horren balioak altxor-bilatuaren arreta isiotu izan du, eta lurruntzia hondoratutako inguru hura murgiltzeko oso arriskutsua izanda ere, *Principe de Asturias* baporea espolioazioaren helburu izan da urte askotan.

Ahantzuraren

Principe de Asturias baporearen hondoratzea zurrumurru eta kondairaz inguratuta egon da urteak joan, urteak etorri. «Titanic espainiarra» ezizenagaz ezaguna zen ontzi hura. Hala ere, 1. Mundu Gerraren ondoren, ahaztu egin zen haren gomuta. Izan ere, prentsa anglosaxoiak gaia alboratu ostean, zelabait ahantzuraren lotu zen 1916ko naufragio hura.

Baina ezin ahaztu hondoratzearen zergatiak hainbat espekulazio izan dituela mende osoan. Hainbaten arabera, lurruntziari torpedo batez eraso zioten; beste batzuen ustez, tripulazioaren zaborriaren ondorioz izan zen, aratusteak ospatzeko jaialdia egin ostean izan ei zen... Hala ere, litekeena da eguraldi txarrak eta iparrorrazaren desbideratzeak izatea errua. ◀



Flashback

Sopelako futbolariak, 1960. urte inguruan

Gaur egun, Sopelako futbolariak Ugeragan, ondo hornitutako zelaietan, jokatzen dute. Lehenago, Zipiriñeko landak ziren berezko futbol-zelaiak; sasi-multzo bi edo harri pare bat nahikoa ziren porteria markatzeko. Hona hemen garai haietako argazkia: 1960. urte inguruan, hamaika morrosko irribarretsu, orduko Athleticen kontra jokatze prest.


Zutunik: Jose Ramon Aio, Andoni Salsidua, Jon Erkoreka, Juan Manuel Uriarte, Isidoro Legarra eta Jesus Mari Garai.

Makurtuta: Iñaki Aio, Jose Agustin Mentxaka, Jose Luis Rua, Jose Antonio Lamas eta Jose Maria Santamaria.

© JUANITA GARAI
UTZITAKO ARGAZKIA



Uribitakora



TESTUA

Unai Angulo Aldekoa

DOINUA

Ilun ikarak azken argia

ARGAZKIA

Hodei Torres

Uribitakoran parte hartu gura duzu?

Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Bada leku kuttun bat

Euskal herrian txoko kuttunak baditugu barra-barra Zugarramurdi, Anboto edo Bilboko itsasadarra baina badago bat berezia izar artean izarra argazki hon(e)tan agertzen zaigun Algortako Portu Zaharra

Garai batean arrantzaleen kabi edo erresuma gaur egunean getxoztarrantzat elkargune ezaguna bizi daiteke bertso-saio bat edo pijama eguna eta gainera goxo sentituz Itsas bitsaren lurruna

Aurrean dugun txalupa horrek *Mirenchu* dauka izena urte askotan ibili zaigu ur sakonetan barrera begi handiak eta fanekak ez dakit zenbat dozena (e)ta lehorrean jaso dezala ohore (e)ta atsedena.



Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua